

PSIKOPEDAGOGIA

Elisa SOTES ECHARRI

**LEHEN HEZKUNTZAN DISLEXIA
DUTEN IKASLEEKIN ESKU-HARTZE
EGOKIRAKO PROTOKOLOA**

GBL 2020

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Grado en Maestro de Educación Primaria
*/ Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua***

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**LEHEN HEZKUNTZAN DISLEXIA DUTEN
IKASLEEKIN ESKU-HARTZE EGOKIRAKO
PROTOKOLOA**

Elisa SOTES ECHARRI

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Elisa SOTES ECHARRI

Izenburua / Título

Lehen Hezkuntzan dislexia duten ikasleekin esku-hartze egokirako protokoloa

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria/ Director-a

Fernando TREBOL UNZUE

Saila / Departamento

Departamento de Psicología y Pedagogía/ Psicología eta Pedagogia Saila

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2019-2020

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatze baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak batik bat marko teorikoan garatzen da. Izan ere, atal honetan gaiaren inguruko oinarrizko ezagutzak azaltzen dira; argibidez, aditu ezberdinen teoriak, dislexia duten ikasleen ezaugarriak, dislexia mota ezberdinak, hezkuntza-premiak, araudia ... adierazten dira.

Didaktika eta diziplinako moduluak, aitzitik, balorazio eta diagnosi atala azaltzeko bidea eman dit, dislexia kasu posible baten aurrean hasieratik jarraitu beharreko irizpideak eta xeheki nola jardun bertan zehazten baitira.

Halaber, Practicum moduluak ikastetxeen errealitatea eta irakasleen formazioaren garrantzia ezagutzeko egokiera eman dit. Azken modulu hau, hortaz, bereziki ikerketaren eta baliabide proposamenaren atalean nabarmentzen da.

Azkenik, Pedagogia Terapeutikoko moduluari esker, ikasleen premien arabera esku-hartze egokia burutzearen eta beharrezkoak diren teknika psikologikoak aplikatzearen garrantzia islatu dut. Aipaturiko nozio hauek batez ere esku-hartze atalean gailentzen dira.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, gazteleraz idatziko dira lanaren "Introducción", "Justificación, cuestiones y objetivos", "Historia y evolución de la dislexia", "Propuesta de recurso: Dispostercolo" eta "Conclusiones y futuras posibles líneas de investigación" atalak.

Laburpena

Dislexia eskola guztietan ohikoa den berariazko hezkuntza premia da. Beraz, ziur aski irakasle guztiak haien lan-esperientzian zehar ikaskuntza nahasmen honekin topatuko dira. Detekzio eta esku-hartze berantiarrek eta desegokiak ondorio sozial zein emozionalak eragiten ditu; hala nola, eskola-porrota.

Honenbestez, Lehen Hezkuntzako irakasleek eta unibertsitate graduako ikasleek dislexiaren inguruan duten formazioa eta ezagutza jakiteko eta formakuntza prozesuan lagunduko liekeena ezagutzeko galdetegiak sortu eta helarazi dira. Jasotako erantzunetan oinarriturik, protokolo argi eta eguneratua eta baliabide eraginkorren zerrenda euskaraz sortu da irakasleen eta graduako ikasleen formazio prozesua errazteko, dislexia kasu baten aurrean esku-hartze goiztiar eta egokia bermatzeko eta eskola-porrota murrizteko helburuekin.

Hitz gakoak: dislexia; eskola-porrota; esku-hartzea; protokoloa; baliabideak.

Resumen

La dislexia es una necesidad educativa específica muy común en todos los centros. Por tanto, posiblemente todos y todas las profesoras a lo largo de su experiencia laboral van a mediar con este trastorno del aprendizaje. La detección e intervención tardía e inadecuada conllevan consecuencias sociales y emocionales como el fracaso escolar.

Así pues, se han elaborado y pasado unos cuestionarios a docentes y estudiantes de grado universitario de Educación Primaria para conocer su proceso de formación y conocimiento acerca de la dislexia y averiguar qué les ayudaría en ese proceso. Acorde con los resultados obtenidos, se ha creado un protocolo claro y actualizado y una lista de recursos eficaces en euskera para facilitar el proceso de formación de docentes y estudiantes de grado, asegurar una intervención temprana y adecuada ante un caso de dislexia y disminuir el fracaso escolar.

Palabras clave: dislexia; fracaso escolar; intervención; protocolo; recursos.

Abstract

Dyslexia is a common specific educational need in every school. That is why all teachers will deal with this learning disorder throughout their work experience. Belated and inappropriate detection and intervention carries social and emotional consequences such as school failure.

Thus, some questionnaires have been developed and conducted with Primary Education teachers and university students to get to know their formation process and knowledge about dyslexia and figure out what would help them in that process. In consistence with the results obtained a clear and actualized protocol and an effective resource list have been created in Basque to facilitate the formation process of teachers and university students, ensure the earliest possible and adequate intervention in case of possible dyslexia and reduce school failure.

Keywords: dyslexia; school failure; intervention; protocol; resources.

Aurkibidea

Introducción	1
1. Justificación, cuestiones y objetivos	1
1.1. Justificación	1
1.2. Cuestiones	3
1.3. Objetivos	4
1.3.1. Conocer la formación y conocimiento de docentes y estudiantes de grado universitario de Educación Primaria	4
1.3.2. Recopilar información y hacerla comprensible y visual	4
2. Marko teorikoa	6
2.1. Historia y evolución de la dislexia	6
2.2. Irakurtze sistema	8
2.3. Dislexiaren definizioa	10
2.4. Dislexia vs. Irakurmen atzerapena	12
2.5. Dislexia mailak eta motak	12
2.6. Ezaugarriak	14
2.7. Alerta adierazleak	16
2.8. Hezkuntza premiak	21
2.9. Araudia eta administrazio zerbitzuak	26
2.9.1. Araudia	26
2.9.2. Administrazio zerbitzuak	26
3. Balorazio eta diagnostia	27
3.1. Kontuan hartu beharreko aspektuak	27
3.2. Balorazio psikopedagogikoa	28
3.3. Erabili daitezkeen tresnak	35
4. Esku-hartzea	37
4.1. Eskolan	38
4.1.1. Metodologia eta estrategiak	38
4.1.2. Materialak eta jarduerak	42
4.1.3. Ebaluazio akademikoa	59

4.1.4. Gizarte eta emozio alderdiak	60
4.2. Familian	61
5. Baliabideak	65
5.1. CREENA/NHBBZ	65
5.1.1. IKT baliabideak	65
5.1.2. Baliabide materialak	67
5.1.3. Gidak, sentsibilizazio ipuinak eta argitalpenak	68
5.2. Elkarateak eta taldeak	70
5.2.1. Disnavarra	70
5.2.2. Dislexia Euskadi	70
5.2.3. Dislegi	71
5.2.4. Disfam	72
5.2.5. Espainiako Dislexia Federazioa (FEDIS)	72
5.2.6. Europako dislexia elkarteak (EDA)	73
5.2.7. Dislexiaren inguruko ikerketa eta aholkularitza elkarteak (AIAD)	73
5.2.8. Ikasteko zailtasun espezifikoen iberoamerikar erakundea (OIDEA)	74
5.2.9. Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL)	74
5.2.10. Facebook taldeak	75
5.3. Baliabide teknologikoak	75
5.3.1. Irakurketa-idazketa lantzeko baliabideak	75
5.3.2. Kontzientzia fonologikoa lantzeko baliabideak	77
5.3.3. Ortografia lantzeko baliabideak	78
5.3.4. Testu ahots bihurtzeko baliabideak	78
5.3.5. Eskemak burutzeko baliabideak	79
5.3.6. Jolas baliabideak	79
5.4. Aplikazioak	80
5.5. Aldizkariak	84
5.6. Giza baliabideak	85
6. Ikerketaren garapena	86
6.1. Hipotesiak	86

6.2. Metodologia	87
6.2.1. Populazioa eta lagina	87
6.2.2. Diseinua	87
6.2.3. Prozedura	95
6.3. Galdetegiaren erantzunen analisi	96
6.3.1. NUP-eko Lehen Hezkuntza graduako azken ikasturteko ikaslearen erantzunak	96
6.3.2. Nafarroako ikastetxe ezberdinetako Lehen Hezkuntzako irakaslearen erantzunak	100
6.4. Ikerketa egiterakoan topatutako mugak	106
7. Propuesta de recurso: Dispostercolo	107
Conclusiones y futuras posibles líneas de investigación	115
Bibliografía	119
Eranskinak	125
I. Eranskina: Sortutako jarduerak	125
II. Eranskina: Galdetegiaren emaitzak	155
III. Eranskina: Dispostercolo	167

INTRODUCCIÓN

El presente Trabajo de Fin de Grado está diseñado para llevar a cabo una pequeña investigación acerca de la formación y conocimiento sobre la dislexia de docentes y estudiantes universitarios/as de Educación Primaria en Navarra, y en relación a los resultados obtenidos, recopilar información actualizada y hacerla comprensible y visual para facilitar el proceso de formación de estudiantes y profesores/as.

Para abordar la realización de este trabajo, este documento se va a estructurar en cierto modo en cuatro partes. En primer lugar, se va a realizar una justificación sobre la elección del tema y el trabajo a desarrollar. También se van a manifestar los objetivos y las cuestiones del trabajo. En segundo lugar, se va a recopilar y desarrollar información actualizada sobre la dislexia (características, legislación, diagnóstico, intervención adecuada, recursos...). En tercer lugar, se va a llevar a cabo la investigación mencionada anteriormente, se van a analizar los datos obtenidos y se van a elaborar conclusiones. Por último, se va a exponer una propuesta fundamentada en los resultados obtenidos en la investigación facilitar el proceso de formación de estudiantes universitarios/as y profesores/as de Educación Primaria.

1. JUSTIFICACIÓN, CUESTIONES Y OBJETIVOS

En este apartado se recoge la justificación del trabajo, las cuestiones planteadas acerca de la formación de profesionales y estudiantes de grado de Educación Primaria y los objetivos de la realización del trabajo.

1.1. Justificación

La razón principal por la que escogí este tema es que la dislexia es una necesidad educativa específica muy común en todas las aulas. Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña y Vicente (2017) señalan que algunos estudios afirman que el porcentaje de niños y niñas con dislexia es entre un 10% y un 20%. No obstante, cabe destacar que es muy frecuente tener en cuenta a su vez alumnos y alumnas con retraso lector. Así

pues, teniendo en cuenta lo mencionado recientemente y aplicando criterios más estrictos y razonables el porcentaje se situaría entre un 2% y un 4%. Por lo tanto, posiblemente todos y todas las profesoras a lo largo de su experiencia laboral van a mediar con este trastorno del aprendizaje.

Otro motivo por el que escogí abordar este tema son las consecuencias sociales y emocionales que conllevan la detección e intervención tardía e inadecuada. Por ejemplo, el fracaso escolar. Esto hace plantearme que algo está fallando en el sistema educativo. La escuela es un contexto fundamental en el proceso de socialización de las niñas y niños, por ello, el papel del o la docente en la detección temprana e intervención adecuada es fundamental. Ni que decir cabe que la formación de los educadores y educadoras debe ser excelente puesto que el desarrollo de las alumnas y alumnos es en parte su responsabilidad.

Muñoz (2017) remarca que la detección e intervención tardía de la dislexia está detrás del fracaso escolar de alumnos/as inteligentes y trabajadores/as. Además, debemos distanciarnos de “las explicaciones del fracaso escolar basadas en las características de niños individuales y de sus familias, y concentrarse más bien en el análisis de las barreras que frenan la presencia, la participación y el aprendizaje, tal como han sido experimentadas por los estudiantes dentro del sistema educativo.” (Ainscow & Echeita, 2011, 36)

Ortiz y Soriano (2018) hacen referencia a la pirámide de Maslow ya que relacionan la dislexia con la autoestima. Tal y como representa la pirámide de jerarquías una de nuestras necesidades imprescindibles es la autorrealización que se consigue mediante la autoestima alta. Esta necesidad es en parte responsabilidad de los y las docentes y depende totalmente de su intervención. Cabe destacar que el entorno (amigas y amigos, familia...) del alumno o la alumna también es significativo en cuanto a su autorrealización. Asimismo, Klecker Hernández (2017) indica que el autoconcepto es conjunto de ideas y creencias que una persona tiene sobre ella misma formadas por las experiencias vividas y la retroalimentación que recibe de su entorno. Así pues, concluye que es una variable individual y motivacional que influye totalmente en el rendimiento académico.

Y por último, tal y como la 2/2006 Ley Orgánica de Educación indica en el Título II: Equidad en la educación, en Educación Infantil debemos prestar gran atención a las necesidades de todas y todos los alumnos para realizar una detección temprana. En la etapa de Educación Primaria se responderá a la diversidad del alumnado y se intervendrá adecuadamente. Debemos respetar y satisfacer las necesidades de todas y todos los alumnos y asegurar el derecho de calidad educativa para todos/as.

“Lo anterior implica cambios y modificaciones de contenidos, enfoques, estructuras y estrategias basados en una visión común que abarca a todos los niños en edad escolar y la convicción de que es responsabilidad del sistema educativo regular educar a todos los niños y niñas. El objetivo de la inclusión es brindar respuestas apropiadas al amplio espectro de necesidades de aprendizaje tanto en entornos formales como no formales de la educación. La educación inclusiva, más que un tema marginal que trata sobre cómo integrar a ciertos estudiantes a la enseñanza convencional, representa una perspectiva que debe servir para analizar cómo transformar los sistemas educativos y otros entornos de aprendizaje, con el fin de responder a la diversidad de los estudiantes. El propósito de la educación inclusiva es permitir que los maestros y estudiantes se sientan cómodos ante la diversidad y la perciban no como un problema, sino como un desafío y una oportunidad para enriquecer las formas de enseñar y aprender.” (UNESCO, 2005, 14)

1.2. Cuestiones

Así pues, se plantean las siguientes cuestiones para abordar el trabajo.

1. ¿Han recibido los/las docentes y los/las estudiantes de grado universitario de Educación Primaria suficiente información accesible y actualizada sobre la dislexia, su detección e intervención adecuada? ¿Y en euskera?

El motivo principal de esta cuestión es conocer el proceso de formación de docentes y estudiantes para estar al corriente de dificultades y carencias.

2. ¿Han tenido que formarse los/las profesionales y los/las estudiantes de grado acerca de la dislexia, su detección e intervención por su cuenta? ¿Ha sido fácil ese proceso?

Del mismo modo, el fin de estas cuestiones es conocer el proceso de formación que han tenido, y si es preciso, facilitarlos.

En relación con estas cuestiones también se plantea la siguiente:

3. ¿Qué agradecerían los/las estudiantes y los/las docentes en ese proceso formativo para facilitarlos y mejorarlos?

En este caso, la finalidad es ayudar en el proceso de formación y para ello, en coherencia con las peticiones, recopilar toda la información actualizada y hacerla accesible en euskera para facilitar el trabajo a estudiantes y profesores/as.

1.3. Objetivos

1.3.1. Conocer la formación y conocimiento de docentes y estudiantes de grado universitario de Educación Primaria

Por consiguiente, uno de los objetivos principales de este trabajo es conocer mediante cuestionarios tanto el conocimiento y formación como los recursos y estrategias que los/las docentes emplean en el aula y la formación y conocimiento que tienen los estudiantes de grado universitario de Educación Primaria. De este modo, se conocerán las dificultades y carencias de los/las docentes y estudiantes y se intentará facilitar y mejorar la accesibilidad y el proceso de formación.

1.3.2. Recopilar información y hacerla comprensible y visual

Por otro lado, en concordancia con los datos obtenidos en los cuestionarios, este trabajo tiene la finalidad de recopilar toda la información posible sobre la dislexia y hacerla fácilmente accesible, comprensible y visual para facilitar el trabajo de los/las docentes y estudiantes de grado de Educación Primaria. De este modo, tanto alumnos y alumnas del grado universitario de Educación Primaria como docentes podrán acceder cómodamente y de manera práctica a información actualizada en euskera sobre la dislexia y su adecuada intervención. Así, futuros docentes y profesores/as de Educación Primaria estarán formados/as, tendrán facilidad a la hora de consultar información, la intervención será apropiada y el fracaso escolar disminuirá.

En el siguiente gráfico V de Gowin se explica brevemente en qué consiste el trabajo.




Figura 1. Diagrama V de Gowin (en castellano).




Figura 2. Diagrama V de Gowin (en euskera).

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Historia y evolución de la dislexia


Tal y como investigó Bravo (2011), el término “dislexia” se empezó a usar hace más de 100 años. En aquella época surgió la necesidad de describir y nombrar una deficiencia severa en el proceso lector. Y de ahí en adelante, se han planteado muchas descripciones, hipótesis y teorías distintas con el fin de explicar el por qué de las dificultades en el proceso de lectura y a su vez facilitar su diagnóstico y tratamiento.

Durante distintas etapas el concepto “dislexia” ha sido entendido de manera muy diversa y la intervención, por lo tanto, también ha variado. En un principio la dislexia se relacionó con el daño cerebral y la hipótesis principal de la causa era el déficit perceptivo-visual, es decir, relacionaban la dislexia con alteraciones visuales. Más adelante, se concluyó que la dislexia únicamente se centraba en deficiencias metodológicas de profesoras y profesores y en las carencias socioculturales de los alumnos y alumnas y sus familias. Hoy en día, sin embargo, se busca una explicación neurocognitiva.

Actualmente las investigaciones sobre la dislexia se centran en la activación de zonas en el hemisferio del cerebro humano. En el proceso lector forman parte dos procesos del hemisferio izquierdo del cerebro: el flujo léxico ventral y el flujo no-léxico dorsal. Gracias a MRI (Magnetic Resonance Imaging) se comprueba que a lectoras y lectores con dislexia se les activa mucho menos esa parte del hemisferio izquierdo que a personas que no tienen dislexia.

La mayoría de investigaciones se centran en el procesamiento fonológico, pero el grupo formado por el centro Basque Center on Cognition, Brain and Language, Ikerbasque, la Universidad de Oviedo y las Universidades de Euskal Herria ha dado un paso más allá. En este caso, en la investigación de la activación del cerebro han tenido en cuenta tanto el procesamiento fonológico como el ortográfico y el semántico. Gracias a su trabajo, se ha podido sacar las siguientes conclusiones acerca de personas con dislexia. En cuanto al procesamiento fonológico, se aprecia hipoactivación en zonas parietales. En relación al proceso ortográfico, se comprueba menor activación en

la zona parietal (área de Broca), en el córtex occipital temporal ventral y en el tálamo. Y por último, en cuanto al procesamiento semántico, se percibe hipoactivación en el ángulo rotatorio y en el hipocampo.



<https://www.cognifit.com/es/dislexia>

Figura 3. Zonas cerebrales afectadas por la dislexia.

Además, comprobaron que en cuanto a la conectividad funcional, es decir, las conexiones entre las zonas cerebrales activadas, en las personas con dislexia son más fuertes. Esto hace reducir la capacidad de superar las dificultades en el proceso lector.

Por lo tanto, los autores de la investigación insisten en la integración de los tres ámbitos de la lectura (Urquijo & Dislegi, 2019). Es importante conocer el efecto que causa la dislexia en distintas zonas del cerebro humano para poder realizar una intervención correcta y adecuada.

Por otro lado, también se está trabajando para avanzar en la predicción y detección del trastorno del aprendizaje. Para ello se utiliza la electroencefalografía que consiste en un gorro con electrodos que graba la actividad del cerebro. Para el alumno o la alumna

es una tarea muy sencilla ya que consiste únicamente en escuchar un cuento. Esta técnica requiere un seguimiento durante años hasta después de que el alumno o la alumna aprenda a leer. Por ello, se insiste en que las profesoras y los profesores deberían recibir formación de psicología cognitiva. No obstante, hasta que no haya elementos más sólidos y eficaces para la detección temprana, se debe fijar en acciones y elementos conductuales (Mujika, 2017).

A pesar de que hoy día las tendencias de investigación sobre la dislexia sean sobre las redes neuronales y funciones cognitivas para poder intervenir adecuadamente, Tellez, Monzón, Moreira & Bonilla (2019) han comprobado que no son muy frecuentes los estudios e investigaciones de las consecuencias educativas y emocionales causadas por la dislexia. Tampoco se han investigado en abundancia las implicaciones en el aprendizaje ni la formación de los profesores y profesoras para intervenir tanto en el ámbito neurocognitivo como en el ámbito educativo y emocional.

2.2. Irakurtze sistema

Orokorrean irakurtzeko gaitasuna guztiontzat konplexua den abilezia da. Izan ere, hainbat prozesu berenganatu behar dira baita aldi berean erabili ere.

Cuetosek eta Vegak (2010) adierazten duten moduan, irakurtze sisteman prozesatze maila ezberdinak bereizten dira.



4.irudia. Irakurtze sistema.

Alde batetik, behe mailako prozesuak ezberdintzen dira. Prozesatze maila honek deskodetzeari erreferentzia egiten dio eta automatizaten diren prozesuak dira. Hautemate prozesuak, letren ezagupena eta prozesatze lexikoa behe mailako prozesuez ezagutzen dira.

Hautemate prozesuei dagokionez, pertzepzioa irakurtzerakoan burutzen dugun lehendabiziko prozesaketa da. Hautemate prozesuan jasotako informazioa bi biltegi ezberdinetan erregistratzen da; oroimen ikonikoan eta epe motzeko ikusmen oroimenean.

Letren prozesaketa banan-banan bata bestearen atzetik prozesatzen da, ezkerretik eskuinera. Halere, prozesatze paraleloa ere gerta daiteke; hots, hitz baten letra guztiak aldi berean prozesatzea.

Prozesatze lexikoa edo hitzen ezagupena, aitzitik, hainbat aspektu eta ezaugarriren menpe dago. Besteak beste, hitzaren lexikoak, agerpenaren maiztasunak, eskurapen adinak, erregulartasunak, irudimen aukerak, auzotasun ortografikoak eta luzerak prozesatze lexikoan zeharo eragiten du. Argibidez, maiztasun handiko hitzak, txikitatik ikasitakoak, erregularrak direnak, iruditzeke errazak direnak eta motzak direnak errazago eta azkarrago ezagutzen eta prozesatzen diren hitzak dira.

Aipagarria da hitz idatzien ezagutze eredu ezberdinak daudela; esaterako, Coltheart-en ibilbide bikoitzeko ereduak. Aditu honek hitzak ibilbide lexikotik baita ibilbide fonologikotik ere prozesatzen ditugula argudiatzen du. Ibilbide lexikotik prozesatzen ditugun hitzak zuzenean gure oroimenean edo ikus-lexikoan ditugun irudikapenen bitartez irakurri ditzakegu. Honenbestez, hitzak modu honetan prozesatu ahal izateko, hitz horiek oroimenean erregistraturik izan behar ditugu, osterantzean, ibilbide hau nekez erabili daiteke. Ibilbide fonologikotik prozesatuz gero, berriz, hitzen grafemak fonema bihurtuz irakurtzen dira hitzak. Kasu honetan grafemak fonema bihurtzeko mekanismoa soilik beharrezkoa da eta ez ditugu hitzak zertan ikus-lexikoan izan. Normalean, irakurtzerakoan bi ibilbideak erabiltzen dira eta geroz eta gehiago irakurri, ibilbide lexikoa gehiago indartzen da.

Beste alde batetik, goi mailako prozesuak bereizten dira. Kasu honetan, prozesatze maila honek ulermena eta baliabide kognitibo asko eskatzen du. Prozesatze sintaktikoa eta semantikoa goi mailako prozesu gisa sailkatzen dira. Prozesatze sintaktikoa hitzak unitate handiagotan elkartzean, alegia, esaldietan elkartzean datza. Goi mailako prozesu honetan hainbat baliabide erabiltzen dira; hurrenez hurren, hitz funtzionalak (juntagailuak...), puntuazio markak...

Prozesatze semantikoari dagokionez, helburu nagusia testu batean idatzitakoa ulertzea eta mezua edo informazioa irakurleak duen ezagueran txertatzea da. Prozesatze maila honen barnean bi prozesu mota, kognitiboek eta metakognitiboek, parte hartzen dute. Prozesu kognitiboen barnean informazioa bilatzea, testua modu globalean ulertzea, testua interpretatzea, edukiaren inguruan hausnartzea eta testu formaren inguruko balioespena egitea aurkitzen dira. Prozesu metakognitiboak, ordea, ulermen prozesua autoerregulatzen dutenak dira.

Dislexia duten ikasleen kasuan prozesaketa fonologikoan zailtasun handiak dituzte; hau da, irakurte sistemaren behe mailako prozesuetan zailtasunak dituzte. Hitzak deskodetzea eta irakurketa automatizatzea oso konplexua egiten zaie. Hortaz, behe mailako prozesuetan zailtasunak edukita, goi mailako prozesuetan, are gehiago.

Bestalde, irakurketa eraginkorra burutu ahal izateko, Shanahanek (2005) argudiatzen duen bezala, National Reading Panelek proposatutako irakurketaren 5 osagaiak kontuan hartu behar dira. Izan ere, irakurketa arrakastatsua izateko kontzientzia fonologikoa, deskodetzea, hiztegia, jariakortasuna eta ulermena ezinbestekoak dira.

Honenbestez, dislexia duten ikasleek irakurketa eraginkorra burutu ahal izateko zailtasun handiak dituzte. Bereziki kontzientzia fonologiko zein deskodetze prozesuak ozta-ozta gauzatzen dituzte.

2.3. Dislexiaren definizioa

Dislexia ikastearen berriazko nahasmenduen barnean kokatzen da; alegia, irakurmenean, idazmenean, arrazoimenean nahiz matematiketako trebetasunetan zailtasunak dituen eta eskolako ikaskuntzan eragin garrantzitsua duen multzo

heterogeneo barruan sailkatzen da. Irakaskuntza egokia jaso duten, zentzumen-alterazio agerikorik ez duten eta ezagutzaren garapen edo adimen batez bestekoa edo altua duten subjektuengan gertatzen da eta egoera hori iraunkorra da. (Eurydice España-REDIE, 2012, 16)

Dislexia irakurmenari zein idazmenari lotutako hizkuntza gaitasunetan eragiten duen nahasmendua da. Bereziki diskriminazio fonologikoan, deskodetzean, epe motzeko oroimenean, sekuentzia fonologikoan eta hizkien pertzepzioan eragiten du, jatorri neurobiologikoa du eta bizi iraunkorra da. (Dislegi, 2015)

Trebol, Astiz, Bildarratz, Etxabarri eta Olazabalen (2004) hitzetan, ikaskuntza zailtzen duen nahasmena da eta oinarriko ikaskuntzetan, egokitzapen eta errendimendu eskolarrean eragiten du. Dislexia duten ikasleek batez ere irudiekin pentsatzen dute eta zeinu, hizki zein zenbakiekin ikasteko arazo handiak dituzte. Beraz, hizkuntza irakasterakoan atentzioa galtzen dute eta ikaskuntza blokeoa sumatzen dute.

Nahasmenak irakurketan, idazketan, hizkeran, denbora eta espazioaren hautematean, nortasun eta jokaera aldatetetan eta garapen psikologikoan eragiten du. Argibidez, irakurketari dagokionez, irakurketa motela burutzen dute, hitzak erditik hasiz irakurtzen dituzte eta hizkiak ordena aldatzen dute. Bestalde, idazterakoan nekea adierazten dute eta giharrak uzkuratzen zaizkie; hortaz, letra irakurtezina eta tamainaz aldagarria dena egiten dute.

DSM-5-en arabera, dislexia neurogarapen nahasmendua da eta irakurmen eta idatzizko adierazpenean zailtasunak sortzen dituen berariazko ikaskuntza nahasmen gisa sailkatzen da. DSM-5 gidan azaltzen den moduan, 4 diagnostiko irizpide bete behar dira (American Psychiatric Association, 2014): irakurmenenean, ulermenean, idatzizko adierazpenean edo ortografian zailtasunak adieraztea; froga estandarizatu indibidualetan adin kronologikorako espero dena baino puntuazio arras baxuagoa lortzea; zailtasunak eskolaldian adieraztea eskolak buruturiko konpetentzia eskakizunek ikaslearen gaitasunak gainditzen dituzten ala ez jakiteko; eta buruenik, nahasmena beste arrazoi edo kausengatik ez izatea, besteak beste, desgaitasun intelektuala, ikusmen edota entzumen desgaitasuna, ezbehar psikosoziala, hizkuntza menperatze falta edo irakaskuntza falta...

2.4. Dislexia vs. Irakurmen atzerapena

Dislexia sarritan beste zenbait desgaitasun edota zailtasunekin nahasten da. Akats ohikoenetariko bat irakurmen atzerapena eta dislexia nahastea da, baina garrantzitsua da oso bien arteko desberdintasuna argi izatea. Honen ondorioz, CREENA-k (2019) egiten duen bereizketa azaltzea funtsezkoa da.

Alde batetik, irakurmen atzerapena arrazoi ezberdinengatik (hizkuntzan zailtasunak izateagatik, desgaitasun sentsorial, motoriko edo intelektuala izateagatik, motibazio faltagatik, alderdi sozioekonomiko edota kulturalengatik...) irakurmen zehaztasunean, jariakortasunean, azkartasunean edota ulermenean eragiten duen ikaskuntza nahasmena da. Beste modu batean esanda, irakurmen atzerapena gainontzeko ikasleekin alderatuta irakurtzen ikasteko abileziaren jabekuntzan denbora gehiago behar izatea da. Irakurmen atzerapena urte batekoa edo bi urtetakoa izan daiteke eta beste ikaskuntza eremuetan ere eragiten du. Halaber, orokorrean esku-hartzeari ongi erantzuten dio.

Bestetik, dislexia oinarri neurobiologikoa duen ikaskuntza berariazko nahasmena da eta modu iraunkorrean deskodetze fonologikoan eta hitzen ezagueran eragiten du. Aldi berean, errendimendu akademikoa oztopatzen du gutxienez 2 urteko atzerapenarekin eta normalean idazteko zailtasunekin ere bat dator. Esku-hartzeari iraunkorra den nahasmena da eta ezin da beste desgaitasun batekin, ikasteko aukera faltarekin edota alderdi soziokulturalekin azaldu; hots, ez da beste egoera edo nahasmendu baten ondorioa.

Honenbestez, bi kontzeptu eta egoerak bereiztea eta desberdintasunak ulertzea ezinbestekoa da detekzio eta esku-hartze egokia burutu ahal izateko. Hortaz, irakasleak bereizketa honen jakinaren gainean egotea oinarrizkoa da.

2.5. Dislexia mailak eta motak

DSM-5ek azaltzen duen moduan, eremu akademiko kaltetuen arabera eta laguntzen bitartez burutu daitekeen konpentsazioaren arabera, 3 dislexia maila ezberdin bereizten dira: arina, moderatua eta larria (American Psychiatric Association, 2014):

-Maila arina:

Eremu batean edo bi eremu akademikoetan eragiten duten zailtasunak arinak dira eta laguntza eta egokitzapen zuzenen bitartez konpentsatu daitezke.

-Maila moderatua:

Zailtasunak nabarmenak dira eremu akademiko batean edo gehiagoetan eta ikaslea eskolatze-aldian laguntza trinko eta egokitzapenik gabe nekez izan daiteke konpetente.

-Maila larria:

Zailtasunak larriak dira eta hainbat eremu akademikoetan eragiten dute. Ikasleak eskolatze-aldian ikaskuntza egonkor, espezifikoa, indibidual eta intentsiboa jaso ezean, gaitasunak garatzeko aukera gutxi ditu. Orobat, ikasleak etxean, gelan eta lanean egokitzapen kurrikularrak eta laguntza zerbitzuak behar ditu jarduera jakin batzuk arrakastaz burutu ahal izateko.

Beste alde batetik, hartutako dislexia eta dislexia ebolutiboa bereizten dira. Hartutako dislexia garuneko gaitz baten ondorioz sortutakoa da eta dislexia ebolutiboa, ordea, zailtasun fonologikoen, neurologikoen... ondoriozkoa da. (Cuetos & Vega, 2010, 81-120)

Hartutako dislexiaren barruan periferikoa eta zentrala bereizten dira, kaltetutako garun zonaldearen arabera. Dislexia periferikoa duten pertsonen irakurmen prozesamenduaren hasieran, hots, zeinuen identifikazioan zailtasunak dituzte. Dislexia mota honen barnean arretarekiko dislexia, zabartasunekiko dislexia, ikus dislexia eta alexia sailkatzen dira. Dislexia zentrala, aitzitik, prozesatze lexiko-semanticorekin bat dator. Kasu honetan, dislexia fonologikoa, lexikoa eta bitarikoa aurkitzen dira. Dislexia fonologikoa bide fonologikotik irakurtzeko zailtasunak izatean datza eta irakurtzerakoan bereziki ikusizko bidea erabiltzen da. Dislexia lexikoa duten pertsonen, aldiz, bide lexikoa erabiltzeko zailtasunak dituzte eta batik bat ibilbide azpilexikoa edo fonologikoa erabiltzen dute.

Dislexia ebolutiboari dagokiolarik, badirudi ibilbide azpilexikoa eskuratzeko zailtasunak daudela; alegia, grafema eta fonemak erlazionatzeko zailtasunak ematen dira. Hala ere, aipagarria da irakurtzerakoan pertsona batzuk ibilbide fonologikoan gehiago oinarritzen direla, eta beste batzuk ibilbide lexikoan, ordea.

2.6. Ezaugarriak

Disnavarra elkarteak ongi adierazten duen moduan, dislexia duten pertsonen gehiengoak jarraian azalduko diren zenbait bereizgarri azaltzen ditu. Hala eta guztiz ere, ezaugarri horiek egun batetik bestera edota momentu batetik bestera alda daitezke eta guztiek ez dituzte ezaugarri berberak. Izan ere, dislexiak duen nolakotasunik finkoena trinkotasun eza da. Era berean, dislexia ez duten ikasleek ere bereizgarri hauekin identifikatu daitezke.

-Ezaugarri orokorrak:

- Oso argia eta azkarra dirudi baina irakurtzerakoan eta idazterakoan zailtasunak ditu. Gainera, bere adin kronologikorako ez du ortografia maila onik.
- “Ahul”, “ergel”, “arduragabe”, “heldugabe”, “jarrera arazodun”... moduan etiketatzen da.
- Ez dabil horren atzeratuta eta trakets eskolan laguntza gehigarria jasotzeko moduan.
- Koziante intelektual altu du baina eskolako emaitzek ez dute baieztatzen. Ahozko azterketetan ongi moldatzen da, idatzizkoetan, ordea, ez.
- Ergela sentitzen da, autoestimua baxua du eta bere ahultasunak ezkututzen ditu. Aise huts egiten du eta eskola, irakurmena edota azterketak ez ditu batere gustuko.
- Arte, musika, antzerki, kirol, mekanika, merkataritzan, diseinuan, eraikuntzan edota ingeniarietan adimentsua da.
- Denbora nozioa erraz galtzen du eta sarritan ametsetan dagoela dirudi.
- Arreta mantentzea zaila egiten zaio, hiperaktibitatea duela dirudi.
- Manipulazio bitartez, behatuz edo laguntza bisualekin gehiago ikasten du.

-Ikusmena, irakurmena eta ortografia:

- Irakurtzerakoan zorabioak, buruko mina edota tripako mina duela dio.
- Letrak, zenbakiak, hitzak, sekuentziak edo azalpen berbalak nahasten ditu.
- Irakurtzerakoan edo idazterakoan errepikapenak, gehigarriak, transposizioak, omisioak, ordezkapenak eta letren, zenbakien edota hitzen bihurketak burutzen ditu.
- Irakurtzerakoan, idazterakoan edo kopiatzerakoan erreala ez den mugimendua sentitzen eta ikusten duela dio.
- Badirudi ikusmenarekin zailtasunak dituela nahiz eta ikusmen azterketan arazorik ez azaldu.
- Gehiegizko behaketa eta ikusmen zorroztasuna du edota pertzepzio sakon eza eta ikusmen periferikoa du.
- Behin eta berriro irakurtzen du ulermenik gabe.
- Bere ortografia fonetikoa eta ezegonkorra da.

-Entzumena eta hizkuntza

- Entzumen zabala du. Besteek entzun ez dutena edo besteentzat agerikoa ez dena entzuten du. Soinuekin erraz arreta galtzen du.
- Pentsamenduak hitzen bitartez azaltzea oso zaila egiten zaio. Esaldi motzekin hitz egiten du; esaldi osatugabeak egiten ditu; urduri dagoenean toteltzen du; hitz luzeak ez ditu ongi ahoskatzen edota esaldi, hitz eta silabak iraultzen ditu.
- Bigarren hizkuntzak ulertzeko eta idazteko zailtasunak ditu.

-Idazketa eta abilezi motorrak

- Idazmenarekin eta kopiaketarekin arazoak ditu; arkatza hartzeko modua ezberdina da; bere idazmena irakurtezina eta aldakorra da.
- Koordinazio gutxi azaltzen du eta pilota jolas edo taldeko jolasetan ez da oso trebea. Abilezi motor finekin edota lodiekin zailtasunak ditu. Zenbait mugimenduekin aise zorabiatzen da.
- Eskuin-ezkertia izan daiteke eta sarritan ezkerre/eskuina eta gora/behera nahasten ditu.

-Matematika eta denboraren erabilera:

- Ordua esateko, denbora kontrolatzeko, informazio edo ekintza sekuentzialak ikasteko edo denboran heltzeko zailtasunak ditu.
- Hatzekin zenbatu behar du edo beste nolako trikimailuak erabili behar ditu. Problemen ebazpenaren erantzunak badakizki baina prozesua ez daki azaltzen.
- Zenbatu dezake baina objektuak zenbatzea eta dirua erabiltzea zaila egiten zaio.
- Aritmetikarekin ez du arazorik baina problema ebatziekin, aljebrearekin edo matematika aurreratuarekin zailtasunak ditu.

-Memoria eta kognizioa:

- Epe luzeko memoria ikaragarria du.
- Sekuentzia eta esperimendu ez duen informazio memorian zailtasunak ditu.
- Irudiekin eta sentimenduekin pentsatzen du eta ez soinu edo hitzekin.

-Jarrera, osasuna, garapena eta pertsonalitatea:

- Oso desordenatua edo txukun konpulsioa da.
- Oso bihurria, arazoduna edo oso ixila da.
- Katamarka ibiltzea, ibiltzea edo lokarriak lotzea oso goiz edo oso berandu garatu zituen.
- Belarri infekzioak hartzeari emana eta zenbait elikagai, eransgarri eta produktu kimikoetara sentikorra da.
- Lo sakona edo oso arina izan dezake. Ohean esfinterrak ez ditu kontrolatzen.
- Mina jasateko tolerantzia oso handia edo oso txikia du.
- Perfekzioa bilatzen du, justizia bilatzen du eta emozionalki sentibera da.
- Nahastean, presioa sentitzean, estresa sentitzean edo osasuntsu ez egotean akatsen eta sintomen maiztasuna handitzen da.

2.7. Alerta adierazleak

Aipatu berri diren ezaugarriak lotuta, alerta adierazleak hiru etapa ezberdinetan sailkatzen dira irakurmen eta idazmenaren jabekuntza garatzen baitoa (con la Dislexia, 2014).

- 4-6 urte bitarte:

Etapa honetan irakurmena eta idazmena eskuratzen hasten dira, baina oraindik ezin da prozesu horien jabeakuntzaz hitz egin. Beraz, detektatu daitezkeen alerta bakarra idazmenean eta irakurmenean zailtasunak izatearen alde aurretiko joera da, dislexia izanik edo izan gabe. Hau da, hizkuntzari lotutako alterazioak antzeman daitezke.

- Dislalia
- Fonemen omisioa edo distortsioa, batez ere silaba konposatuetan eta alderantzizkoetan. Batzuetan azken fonemaren omisioa ere egiten da. Adibidez, “bazo” “brazo” ordez edota “e perro” “el perro” ordez.
- Fonemen nahasketa. Poliki hitz egitera gonbidatuz gero, hobeki ahoskatzen du baina bere hizkuntza espontaneo nahasgarria da.
- Inbertsioak. Silaba baten barruan fonemen inbertsioa edota hitz baten barruan silaben inbertsioa. Adibidez: “pardo” esan ordez, “prado”.
- Orokorrean, hiztegi eta adierazpen pobrea, hitzeko ulermen baxuarekin batera.
- Hizkuntzan alterazioak izateaz gain, honako adierazleak ere antzematen dira:
 - Gorputzaren eskemaren identifikazioan eta egituraketan atzerapena.
 - Zentzumen-pertzepzio ariketak burutzeko (koloreak, formak, neurriak, posizioak... bereizteko) zailtasunak.
 - Motrizitate baldarra. Eskuzko eta ortografia ariketak egiteko trebetasun ahula. Independentzia segmentalaren gabezia ematen da eta artikulazio ezberdinak modu independentean mugitzeko zailtasunak ditu.
 - Oinarrizko mugimendu grafikoak alderantzikatzen ditu. Grafiak erlojuz kontrako noranzkoa eskatzen badu ere, orratzen norabidea jarraitzen du.
 - Etapa amaitzean letrak eta zenbakiak ikasiz gero, memorizatuz gero eta bereiziz gero, ispilu idazketa, inbertsioak, nahasmena, idazketaren lerrokatze falta eta grafiaren tamaina ezegonkorra ematen da.

- Irakurketa teknika ikasi denean, zalantzak, errepikapenak, zuzenketak, ez-betetzeak, gehikuntzak, letren nahasketak, hitzen ordezkapenak... ematen dira.
- Garapenean desoreka.
- Zailtasunak epe motzeko eta epe luzeko hitzeko oroimenarekin (Eusko Jaurlaritza, 2010):
 - Sekuentziak eta segidak (zenbaki-serieak, etab.) gogoratzeko abilezia eskasa.
 - Denborazko eta espaziozko kontzeptuekin arazoak (asteko egunak...).
 - Zailtasunak errimarekin.
 - Hitzak gogoratzeko edo hitzei etiketak jartzeko zailtasunak. Objektu ezagunen izena gogoratzeko zailtasunak (adibidez, mahaia eta aulkia kontzeptuak nahastea), nahiz eta kontzeptua argi izan.
 - Zailtasunak jarraibideekin eta errutinekin.

- 7-9 urte bitarte:

Etap honetan idazmenari, irakurmenari eta kalkuluari garrantzi handia ematen zaio. Honenbestez, fase hau zailtasunak detektatzeko ezin hobea da, betiere heldutasun falta, nagikeria, borondate eza, desgaitasun intelektuala edo beste kausaren bat zailtasun horren arrazoia ez denean. Etap honetan zailtasunak hizkuntza, irakurmen eta idazmen eremuetan bereizten dira.

- Hizkuntza:

Aurreko aldiko dislaliak eta hutsuneak normalean gainditzen dira edo gainditzeko prozesuan daude. Inbertsioen eta fonemen nahasmenaren maiztasuna, osterantzean, handitzen da. Hitzeko adierazpen eskasa eta hitz berriak ikasteko zailtasunak antzematen dira. Oro har, hizkuntza arloan errendimendua nahiko baxua da. Halere, azalpenak idatziz eman beharrean hitzez emanez gero, hobe eta azkarrago ikasteko gai da.

Dislexia duten ikasleen zailtasun handienetariko bat errepikapena da. Gelan jarduera errepikakorrak burutzen baldin badira, guztiz aspertzen da; batik bat, ezagutzaren aurrerapena gertatzen ez denean eta errefortzu egokia egiten ez denean.

- Irakurmena:

Nahasteak batez ere morfologikoki eta fonetikoki antzekoak diren letretan ematen dira. Esate baterako, “a” eta “o” bokal idatzietan, “a” eta “e” bokal inpresoetan edota “u” eta “o” bokal fonetikoetan. Era berean, simetrikoki edo xehetasun txikiengatik bereizitako hizkiek nahasmendua sortzen dute, batez ere, inprenta moduan idatzita daudenean. Argibidez, d/b, p/q, u/n eta d/p.

Bestalde, hitzetan gehigarriak atxikitzen edo omisioak egiten dira eta silabetan omisioak edota inbertsioak egiten dira. Beste batzuetan ere hitzen silaben ordena aldatzen da (inbertsio dinamikoa) edota silaben errepikapena burutzen da.

Arestian aipaturiko ezaugarriez aparte, badaude dislexia susmoak pizten dituzten beste adierazle batzuk:

- Erritmo falta irakurmenean.
 - Arnasketa eta irakurmenarekin sinkronizazio eza.
 - Irakurtzerakoan puntuazio markak ez dira kontuan hartzen eta esaldiak zentzurik gabe oso luze edo motzegiak egiten ditu.
 - Irakurtzerakoan galtzen da. Lerro batetik bestera saltoak egiten ditu edo lerro bera behin baino gehiagotan irakurtzen du.
 - Irakurmen egokia lortzean, soilik mekanikoa da; hots, ulermenik gabe burutzen da.
- Idazmena:
 - Batzuetan letren inbertsioa egiten da, ispilu moduan.
 - Grafiaren obaloen norabidea aldatzen du eta horrek zalantzazko idazkera irregularra sortzen du.

- Grafiagatik edo soinuagatik antzekoak diren hizkiak nahasten ditu.
- Irakurmenean bezalaxe hizki, silaba edo hitzen omisioak eta inbertsioak ematen dira.
- Letra larriak eta minuskulak nahasten ditu.
- Hitzen taldekatze edo bereizketa okerrak burutzen dira. Adibidez: “y enlacoruña viaunas olas muigrandes y mecudrian”.
- Esaldien elaborazioan zailtasunak eta letra tamaina irregularra.

Bestetik, idazkeran beste hainbat bereizgarri antzematen dira:

- Koordinazio ahula.
- Ikaslearen eta orriaren jarrera eta posizio ezegokiak.
- Muskulu tonu desegokia.
- Zenbakietan alterazio grafikoak.
- Bi zifretako edo gehiagoko zenbakietan inbertsioak burutzen dira (adbz. 24/42, 140/104).
- Soinu antzekoa duten zenbakien nahasketa.
- Seriazio eta espazio orientazio zailtasunak.

- 9 urteetatik aurrera:

Etap honetan dislexiak eragindako ezaugarriak ikasle batetik bestera aldatzen dira. Izan ere, ikaslearen interakzionatzeko modua, izaera eta ingurua konplexuagoak eta zabalagoak dira.

Etap honetako nahasmen ohikoak honakoak dira:

- Esaldiak, errelatoak... egituratzeko zailtasun handiak. Era berean, ezaguera modu autonomoan azaltzeko zailtasunak.
- Kontzeptu zehatzekin bere burua azaltzeko zailtasunak.
- Aditzen denbora zuzena erabiltzeko zailtasunak.
- Ahozko adierazpen eskasa.
- Irakurketa mekanikoa da eta ez du gustuko. Esfortzu handia egin behar du.

- Seriazio zailtasunak (hiztegia erabiltzeko, alfabetoa ikasteko, biderkatzeko taulak ikasteko...).
- Motrizitatean baldartasuna.
- Ortografian zailtasun handiak.
- Grafia alterazioak.
- Denbora eta espazio desorientazioa.
- Autokonfiantza eza eta frustrazioa (Eusko Jaurlaritz, 2010).

Ikaslea presiopean dagoenean bere errendimendua bortizki jaisten da eta aipaturiko zailtasun eta ezaugarri ikusarazten dira.

Aldi honetan bereziki ondorengo faktoreak kontuan hartu behar dira:

- Adimen koizientea. Adimen altuko ikasleek dislexiari aurre egiteko modua eta bideak aurkitzen dituzte. Halaber, jasotzen dituzten inguruko laguntzek ere konpentsazio prozesua errazten dute.
- Dislexia maila edo larritasuna. Dislexia larriak arinak baino konplexuagoak dira, jakina.
- Detekzio goiztiarra eta esku-hartze egokia ezinbestekoa da ikasleak eguneroko bizitzan modu arrakastatsu eta eraginkorrean jarduteko.
- Diagnostiko zuzena egin. Zailtasunei modu zuzenean aurre egiteko eta bizi kalitatea egiaztatzeko ezinbestekoa da.
- Familia eta eskolaren arteko koordinazioa tratamenduan. Ikaslearen motibazioa eta autoestimua funtsezko alderdi bezala kontuan hartu.

2.8. Hezkuntza premiak

Dislexia duten ikasleek hainbat arlo ezberdinetan hezkuntza laguntza berariazko premiak dituzte; eskola ikaskuntzetan (irakurmena, idazmena eta matematika), garapen linguistikoa, garapen kognitibo eta metakognitiboa, garapen afektibo, sozial eta jarrerazkoa, garapen motorrean eta antolakuntzan (Angulo-Domínguez, Ocampos, Luque-Vilaseca, Rodríguez-Romero, Sánchez-Cantero, Satorras-Fioretti & Vázquez-Uceda, 2011, 24-27 orr.).

Jarraian premia horiek guztiak taula batean alderdi ezberdinen arabera sailkatuta adierazten dira:

1.taula. Dislexia duten ikasleen hezkuntza-premiak.

ALDERDIA	PREMIAK
IRAKURMENA	Fonema ezberdinak diskriminatu eta identifikatu.
	Zuzentasunez grafema fonema konbertsioa burutu.
	Deskodetutako informazioa ulertu ideia nagusi eta ondorio garrantzitsuenak ateraz.
	Irakurritakoa azaldu eta erreproduzitu.
	Irakurmen atazengatik motibatuta sentitu.
	Irakurketan sortzen diren akatsak (omisioak, inbertsioak, gehigarriak ...) zuzendu.
	Irakurtzerakoan azkartasun, erritmo eta intonazio hobea hartu.
	Sasi-hitzak irakurri edo ezagutzen ez diren hitzei irudia esleitu.
	Irakurtzerakoan jasandako nekea murriztu.
	Irakurritakoa deskodetu eta oroitu, hitzak asmatu gabe.
	Testua galdu gabe eta lerroak saltatu gabe jarraitu.
	Irakurritakoaren berbalizazio eta intonazioa kontuan hartu irakurritakoa hobe ulertzeko.
	IDAZMENA
Grafia irakurgaia egin.	
Idazteko atazetan jariakortasuna eta erritmoa hobetu.	
Paperarekiko orientazio egokia hartu.	
Segmentazio akatsak murriztu.	
Fonema-grafema konbertsioa burutu, akatsak saihestuz.	
Arau ortografiko eta gramatikalak ikasi.	
Paragrafoak sortu eta idatzizko konbentzioak errespetatu.	

	Idazmen adierazpen aukerak handitu.
	Idatzitakoa ordenatu eta zaindu.
MATEMATIKA	Oinarrizko nozioak eta zenbaki kontzeptua ikasi.
	Kontzeptu matematikoak barneratu.
	Zenbaketa eta sistema hamartarra barneratu.
	Oinarrizko eragiketak zuzen ebatzi.
	Problema matematikoak ebatzi.
	Kalkulu mentala azkartzeko estrategiak garatu.
GARAPEN LINGUISTIKOA	Hizkuntzaren jabeak eta garapen egokia.
	Garapen fonologiko zuzena eskuratu.
	Hizkuntza alderdi kaltetuak hobetu. Hitz egiterako orduan dauden zailtasunak zuzendu.
	Kontzeptuen forma linguistikoak atzitu.
	Hiztegia zabaldu.
	Letreiatzeko gaitasunak hobetu.
	Galderei hizkuntza jariatortasunez erantzun.
	Produktio propioak zuzendu.
	Soinu eta fonemena jakin batzuk modu zuzenean ahoskatu.
	Antzekoak diren soinuak ezberdindu.
	Bigarren hizkuntzen ahozko eta idatzizko alderdiak barneratu.
	Narrazioak modu koherente eta argian azaldu.
	Hizkuntza propioaren eta aukera propioen inguruan hausnartu.
	Diskriminazio gaitasun bisual zein entzunezkoak hobetu.
	Akatsak saihesteko xehetasunetan arreta jarri.
	Atazak burutzerakoan arreta gaitasunak zabaldu.
	Memoria aukerak zabaldu.
	Informazio sekuentziatu ezberdina buruan gorde.
	Gutxien garatutako garuneko funtzioak konpentsatu.

GARAPEN KOGNITIBO ETA METAKOGNITIBOA	Esfortzu mentala baloratu.
	Eskolako zein pertsonalak diren ekintzetan antolatu.
	Errutinak errespetatu eta barneratu.
	Ataza berriak ikasi eta burutu.
	Ekintza ezberdinak aldi berean burutu.
	Lanen aurkezpena zaindu.
	Galderekin koherentea den informazioa prozesatu erantzun egokiak emateko.
	Jasotako informaziotik ondorioak atera.
	Atazak burutzeko erritmoa handitu.
	Impulsibitatea kontrolatu. Pentsatzekoaldiak ezarri.
	Egindako akatsak zuzendu.
	Itxoiak ikasi.
	Bere antsietatea kontrolatu eta egonkortasuna lortu.
GARAPEN AFEKTIBO, SOZIAL ETA KONDUKTUALA	Frustrazioa jasaten ikasi.
	Beldur edo zailtasunetan bukatu daitezkeen antsietatea murriztu.
	Ikaskuntza berriak burutu.
	Eskolarekiko motibazioa sustatu.
	Esfortzua lanaren balore positibo gisa hartu.
	Autoestimua handitu.
	Bere balore positiboak besteen aurrean baloratu.
	Besteak errespetatu eta besteengatik errespetatua izan.
	Ikaskideak errespetatu baita haien ikaskuntza prozesua ere.
	Jolas egoeretan parte hartu eta arauak errespetatu.
	Egoeraren arabera jarrera egokitu.
	Hitz egiten ari dion pertsona entzun.
	Zalantzak argitu aurrera jarraitu ahal izateko.
Eskolako materiala zaindu.	
Koordinazio sentsoriala eta motrizitatea hobetu.	

GARAPEN MOTORRA	Intentsitate egokiarekin arkatza heldu eta koadernoan idatzi.
	Adin kronologikoarekiko psikomotrizitate fina garatu.
	Oreka eta koordinazio aukerak zabaldu.
	Gorputzeko tonu eta jarrera mugimenduaren arabera egokitu.
	Erritmo eta orden egokiarekin mugitu.
	Lateralitatea ezarri eta gorputzeko eskema barneratu.
ANTOLAKUNTZA	Giro positibo eta konstruktiboa sortu.
	Ikaskuntza erritmo ezberdinak onartu.
	Dislexia zer den, ondorioak zeintzuk diren eta esku-hartze egokia ezagutu.
	Giro egituratu eta ordenatua mantendu.
	Azalpen argiak, mantsoak eta errepikakorrak eman.
	Gaitasunak eta esfortzuak goraipatu.
	Familiarekin kolaborazioan aritu esku-hartze egokia burutzeko.
	Ebaluazioa egokitu.
	Ikaslearengan konfiantza erakutsi.
	Beste nahasmen edo desgaitasun posibleen (AFN-H ...) presentzia behatu.

Buruenik, hezkuntza premiei begira, Hizkuntzaren Nahaste Espezifikoa (TEL) eta dislexia bereiztea garrantzitsua da. Izan ere, bi nahasteek oinarrian zailtasun fonologikoak izan arren eta premia antzekoak partekatu arren, DSM-V sailkapenean bereizten diren bi nahasmen desberdin dira. Hizkuntzaren Nahaste Espezifikoak (TEL) ahozko hizkuntzaren soinuen pertzepzioan zein diskriminazioan, hiztegiaren jabekuntzan, hizkuntzaren produkzio zein ulermenean eta arau gramatikaletan zailtasunak eragiten ditu. Dislexia, aitzitik, batik bat hizki eta soinuen arteko erlazioa sortzeko eta ulertzeko zailtasunarekin eta irakurmen jariakortasun ezarekin uztartzen da (Acha, 2016, 107-141 orr.).

2.9. Araudia eta administrazio zerbitzuak

2.9.1. Araudia

Disfam (2019) elkarteak adierazten duen bezala, estatuak dislexia eta beste berariazko ikaskuntza nahasmenduak estatuko buletin ofizialean kontenplatu ditu. 71. eta 72. artikuluetan ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleen eskolatzea arautzen da. Berebat, detekzio goiztiarra burutu behar dela, arreta indibiduala eskaini behar dela eta ikasleen beharretara egokitutako baliabideak erabili behar direla legeztatzen da.

Nafarroan bereziki 65/2012 Foru Aginduak dislexiagatik, bestelako berariazko ikaskuntza nahasmenduengatik eta arreta faltagatik nahasmenduarengatik (hiperaktibitatearekin) hezkuntza premia berariazkoak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna arautzen du. Mandatu honek 93/2008 Foru Aginduan ezarritakoa osatzen du arestian aipaturiko nahasmenduak dituzten ikasleen hezkuntza-erantzuna xedatzen du eta. Besteak beste, nahasmendu horien definizio, jarduteko printzipioak eta hezkuntza erantzuna zehazten da. Orobat, detekzioa, identifikazioa eta ebaluazio psikopedagogikoa egiteko irizpideak azaltzen dira eta gelan hezkuntza arreta emateko neurriak ere bai. Buruenik, metodologia alderdiak zein ebaluatzeko prozedura egokiak adierazten dira (Nafarroako Gobernua, 2012).

2.9.2. Administrazio zerbitzuak

“Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (NHBBZ) Hezkuntza Departamentuaren menpeko erakunde bat da. Foru Dekretu bidez eratu zen 1993an. Hezkuntza sistemaren laguntza egitura espezializatu gisa sortu zen, eta berariazko hezkuntza premiei lotutako guztia antolatu eta koordinatzen du, ikasleak hezkuntza sisteman hobeto integratzen laguntzeko.

Normalizazio eta gizarteratzearen hezkuntza printzipioekiko koherentzia mantenduta, erakunde horren esku-hartze espezializatu eta ezohikoa hezkuntza komunitateko kide guztiei zuzenduta dago (irakasle, ikasle eta familiak), eta «osagarritasun» eta «subsidiaritasun» irizpideen arabera bideratzen da; halaber, zentroaren ekintzek, kasu guztietan, prestakuntzakoak izan behar dute eta baliabide arrunten autonomia indartu behar dute”. (Nafarroako Gobernua, 2020)

Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen zerbitzu publiko honek hezkuntza laguntza berariazko premiak dituzten ikasleei erantzun egokia emateko informazio zein baliabideak ematen ditu; besteak beste, bibliografia, aldizkariak, blogak, ebaluazioa psikopedagogikoa egiteko gidak, CD-ak, material didaktiko egokiak, baliabide teknologikoak, indarrean dauden legeei buruzko informazioa, e-mail bidezko aholkularitza, formazio saioen informazioa, Hezkuntza Premia Berariazkoak dituzten ikasleei buruzko informazioa eta nahasmen ezberdinen arabera esku-hartzeak egiteko eskaera aukera ematen du.

3. BALORAZIO ETA DIAGNOSIA

3.1. Kontuan hartu beharreko aspektuak

Balorazioa egiterako orduan, Boleak, Condek, Panaderok, Pérezek, Valtueñak eta Vicentek (2017) idatzitako gida praktikoan adierazten duten moduan, zenbait aspektu kontuan hartzea ezinbestekoa da.

- Testuinguruaren datu erlatiboak:

Ikaslearen zailtasunak ulertzen lagunduko gaituen informazioa biltzean datza. Besteak beste, irakurtzeko eta idazteko zailtasunen aurrean bestelako azalpen posibleak baztertzeko lagungarria den testuinguruko informazioa kontuan hartu behar da. Ikaslearen orainaldiko zein iraganeko eremu familiarraren, ebolutiboaren, medikuaren eta hezkuntza eremuaren datu erlatiboak erabilgarriak izan daitezke.

- Historia pertsonala eta garapen ebolutiboa:

Haurdunaldiari, erditzeari, elikadurari, lo egiteari, ikusizko eta entzumen funtzionamenduari, gaixotasunei, istripu larriei, ospitalizazioei, eskuzko lehentasunei, garapen afektiboari... erreferentzia egiten dio. Hortaz, aspektu horien guztien informazio nabarmena ebaluazioa egiterakoan kontuan hartu behar dira. Bereziki hizkuntzaren garapenari arreta jarri behar zaio dislexia duten ikasleen kasuetan zailtasunak izan ohi baitira gaitasun harkor zein adierazkorretan.

- Hezkuntza historia:

Atal honetan eskolatze erregulartasuna eta ezaugarriak nabarmentzen dira; hau da, absentismoa, eskola aldaketak edota eskolatze berantiarra. Halaber, irakurketa-idazketaren ikaskuntza zein adinetan hasi zen, noiz eta zer nolako zailtasunak sortu ziren eta haien bilakaera nolako izan zen aztertzen da. Era berean, irakurketa-idazketaren ikaskuntzan erabilitako metodoa eta aplikatutako estrategia metodologikoak kontuan hartzen dira.

Buruenik, hezkuntza errendimendua, beharreko eta jasotako laguntzak, egindako berreskurapen programak eta txosten psikopedagogikoak ezagutu behar dira. Gainera, dislexia kasu posible baten alerta adierazleak behatu daitezke ikaslea eskolatuta dagoen mailarekin alderatuta.

- Testuinguru sozio-familiarra:

Erabat komenigarria da familiaren inguruko datu aipagarrien jakinaren gainean egotea. Argibidez, familiaren osaera, alfabetatze maila, okupazioa, etxeko hizkuntza, ikastetxearekiko harremanak, familia kideen gaixotasunak, familiaren kezkak, eskola berezko jarduerak... ezagutzea zeharo lagungarria da.

- Familia aurrekariak:

Familiako kideen dislexia kasuen edota hizkuntza idatziaren zailtasunen aurrekariak ezagutzea garrantzitsua da.

3.2. Balorazio psikopedagogikoa

Balorazio psikopedagogikoaren helburua ikasleen hezkuntza premiak identifikatzea eta ikasleari egokitutako hezkuntza erantzuna planifikatzea eta aplikatuko diren neurriak ezartzea da.

Esan beharra dago lehenik alerta adierazleak behatu behar direla eta horiek identifikatu ostean neurri arruntak (irakurketa-idazketa indartzea, estrategia metodologikoak, talde lana, talde bikoizketak...) hartu behar direla. Ondoren, aipatutako neurri horiekin hobekuntza egon ezean, ebaluazio psikopedagogikoari ekin beharko zaio.

Dislexia eskola guztietan arrunta den nahasmena denez, Vallespirek et.al (2010) detekzio eta jarduketa protokoloa sortu dute eta irakasleriari zuzendutako tresna erabilgarri eta praktikoa bat proposatzen dute. Irakasletzari lana errazteko asmoz, profesional hauek ikasleekin ebaluazioaren hasieran erabili daitekeen alerta adierazleetan oinarritutako errubrika bat eraiki dute. Irakurketa-idazketan, leku eta denbora eremuetan eta eremu emozional zein jarrerazkoan zailtasunak azaldu dituen ikasleri hasieratik bertatik tutoreak ebaluazioa egiteko tresna erabilgarria da. Erabilera sinplea du soilik "X" baten bitartez item guztietan erantzun zuzena "BAI", "EZ" edo "EG" (ebidentziarik gabe) markatu behar da eta. Ikasleak ebaluatzen diren eremu ezberdinetan azaldutako ezaugarriak eta horien maiztasuna kontuan hartuko da. Berebat, txantiloaren bukaeran iruzkinen atalean azalpenak zehazteko eta sakontzeko aukera ere badago. Jarraian errubrikaren txantiloa agertzen da.

**Dislexia
Protocolo de DETECCIÓN:
Educación Primaria
(Primer ciclo)**

Alumno/a:	
Centro educativo:	Fecha de nacimiento:
Curso:	Fecha de observación:

Indique con una "X" la respuesta adecuada a cada uno de los ítems.

Historia clínica	SI	NO	SE 5
Presencia de alteración visual. Especificar:			
Presencia de alteración auditiva. Especificar:			
Valoración neurológica. Especificar:			
Otras enfermedades. Especificar:			
Antecedentes familiares de dificultades de aprendizaje. Especificar:			

Discrepancias entre:	SI	NO	SE
Cociente intelectual y el éxito escolar.			
Trabajo oral y trabajo escrito.			
Rendimiento en distintas materias.			
Comprensión y memoria.			
Días buenos y días malos.			
Esfuerzo-trabajo y la calidad del resultado final.			

ÁREA	CARACTERÍSTICAS	SI	NO	SE
Comprensión y expresión oral	Presenta dificultades de acceso al léxico (vocabulario).			
	Al hablar, da explicaciones largas y complicadas.			
	Al hablar "juega, más de lo habitual, con el tiempo" (um..., eh...).			
	Le cuesta entender lo que le están explicando.			
	Presenta dificultades a la hora de narrar experiencias propias, expresar emociones...			
Lectura / Escritura	Le cuesta seguir una serie de instrucciones.			
	Presenta dificultades significativas en la adquisición de la lectura.			
	Presenta dificultades significativas en la adquisición de la escritura.			
	Presenta dificultades en palabras multisilábicas.			
	Aversión a la lectura y la escritura.			
	Cambia, muy frecuentemente, el orden de las letras-sílabas dentro de las palabras (inversión).			
	Omite o añade letras, sílabas o palabras (omisiones y adiciones) muy frecuentemente.			
	Confunde letras simétricas "en espejo" (rotaciones) muy frecuentemente.			
	Cambia letras por otras (sustituciones) muy frecuentemente.			
	Junta y separa palabras de forma inadecuada (uniones-fragmentaciones) muy frecuentemente.			
	Presenta dificultades en la segmentación de sonidos.			
	Presenta dificultades en la unión de sonidos.			
	Comete un número elevado de faltas de ortografía natural.			
	Le cuesta integrar las reglas ortográficas trabajadas en clase.			
	Comete un número elevado de errores de sintaxis.			
	Su nivel lector se halla muy por debajo del grupo clase.			
	Se salta muy frecuentemente renglones al leer.			
	Se inventa palabras al leer o realizar un explicación oral.			
	Tiene una baja o nula comprensión lectora.			
	Muestra alto grado de malestar ante la lectura.			
Presenta dificultades a la hora de realizar un dictado (no sigue, se pierde, etc.).				
Comete, muy frecuentemente, un número elevado de errores en los copiados.				
Presenta dificultades significativas en la calidad del grafismo y la organización del espacio.				

ÁREA	CARACTERÍSTICAS	SI	NO	SE
Matemáticas y comprensión del tiempo	Mayor dificultad para el aprendizaje de lenguas (castellano, catalán, inglés...).			
	Dificultades en el cálculo mental.			
	Dificultades persistentes en la interpretación y el uso de símbolos matemáticos.			
	Dificultades en la asociación número-cantidad.			
	Presenta dificultades significativas en la integración del concepto de temporalidad (días, meses, horas, fechas, estaciones del año).			
	Confusión significativa en el vocabulario y en los conceptos temporales (hoy, mañana, antes, después, ahora, luego, primero, segundo...).			
	Presenta dificultades significativas en integrar las tablas de multiplicar.			
	Presenta dificultades significativas en la comprensión y resolución de los problemas.			
Aspectos cognitivos: memoria, atención y concentración, percepción, orientación, secuenciación	Presenta dificultades a la hora de copiar de la pizarra.			
	Se queja del movimiento de las letras en la lectura y/o la escritura.			
	Presenta dificultades a la hora de integrar y automatizar el abecedario.			
	Confusión frecuente en el vocabulario y en el concepto vinculado con la orientación espacial (derecha, izquierda, arriba, abajo).			
	Baja memoria para datos, etc.			
	Baja memoria para instrucciones, mensajes, recados, etc.			
	Presenta dificultades para recordar lo aprendido el día anterior.			
	Presenta serias dificultades a la hora de recordar información recibida por la vía de la lectura.			
	Buena memoria a largo plazo (caras, experiencias, lugares, etc.).			
	Pierde cosas con facilidad (se olvida de dónde ha dejado las cosas, no trae el material necesario a las clases...).			
Salud	Presenta dificultades con el ritmo (poesía, música, etc.).			
	Presenta dificultades de atención.			
	En ocasiones es propenso a infecciones de oído.			
	Puede presentar frecuentes dolores de barriga y/o de cabeza.			
	En ocasiones presenta problemas de enuresis y/o encopresis.			
	Presenta problemas emocionales asociados: ansiedad, depresión, trastornos de alimentación, trastornos del sueño, problemas de conducta...			

ÁREA	CARACTERÍSTICAS	SI	NO	SE
Personalidad y organización personal	Presenta alteraciones cutáneas (dermatitis atópica, eritemas...).			
	Es desordenado.			
	Le cuesta organizarse (pupitre, deberes, objetos personales).			
	Presenta dificultades a la hora de estudiar de forma independiente.			
	Le cuesta acabar las tareas y/o deberes en el tiempo esperado.			
	Es emocionalmente sensible.			
	Puede sufrir a menudo cambios bruscos de humor.			
	Puede tener una mayor capacidad intuitiva.			
	Puede tener un mayor grado de curiosidad, creatividad e imaginación.			
	Con frecuencia es catalogado de inmaduro.			
	Insatisfacción escolar (con los iguales y/o el profesorado).			
	Baja motivación hacia los aprendizajes.			
	Con frecuencia es catalogado de "vago".			
	Baja resistencia a la fatiga (se cansa con facilidad).			
Baja autoestima.				
Muy susceptible.				
Dificultades de adaptación social (restricción social, agresividad, dificultades con las normas, inhibición...).				
Coordinación psicomotriz	Tiene dificultades en las habilidades motrices finas (torpeza manual y poco dominio de destrezas).			
	Presenta dificultades en las habilidades motrices gruesas: coordinación y/o equilibrio (juegos de pelota, en equipo, correr, saltar, etc.).			
	Con mayor frecuencia que el resto, confunde izquierda-derecha, arriba-abajo, delante-detrás.			
	Dificultades para realizar secuencias motrices.			

Observaciones:

5.irudia. Hasierako ebaluaziorako errubrikaren txantiloia.

Behin tutoreak errubrika pasatzean, orientazio taldeari, edo behar izanez gero, kanpoko profesionali informazioa helaraziko zaie. Egoeraren azterketa egin ostean, dislexia kasu posible baten aurrean egonez gero, ikaslearen ebaluazio indibidualera joko da.

Aipatzekoa da ikasleak ebaluazio eremuren batean berezko ezaugarririk ez izan arren, ez du zertan suposatzen ikaskuntza nahasmenik ez izatea, ezta alderantziz ere.

Modu berean, Errioxako gobernuak (2019) argitaratu berri duen protokoloan irakurmenean dislexia berezitasunak aztertzeke errubrika proposatzen du.

Lehenik eta behin ikaslearen hezkuntza eremuko eta familia eremuko informazioa jaso behar da datu adierazgarriren bat kontuan hartu behar den ala ez jakiteko. Hortaz,

familiarekin harremanetan jarri beharra dago. Horren ostean, desgaitasun sentsorial (ikusizko eta entzutezkoak) zein kognitiboak baztertu behar dira (Silvia, 2011).

Beste alde batetik, dislexia kasu posible baten aurrean egonez gero, ikaslearen ebaluazio indibidual zehatzagoa gauzatuko da. Horretarako, CREENA-k (2019) ebaluazio psikopedagogikoa burutzeko proposatutako txostenean jasotzen diren orientabideak eta pausuak jarraituko dira. Besteak beste, bertan ebaluatu beharreko alderdi ezberdinen arabera eta adinaren arabera ordenatutako instrumentu eta test estandarizatu anitzak proposatzen eta sailkatzen dira. Profesionalentzat oso baliagarria den materiala da aztertu nahi denaren arabera kasu eta egoera jakin bakoitzean erabili beharreko ebaluazio tresna zehazten baita.



6.irudia. Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko jarraibideen txostena.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da erabakiak hartu ahal izateko, soilik ebaluazio honekin ez dela nahikoa. Izan ere, test estandarizatuetan jasotako informazio guztia analisi kualitatibo eta datu gehiagoren bilketarekin osatu behar da. Arestian esan bezala, hezkuntza eremuko eta eremu familiarreko informazio nabarmena jaso behar da; adibidez, elkarrizketen, galdetegiaren, behaketaren eta erregistroen bitartez. Gainera, dislexia diagnostikatu ahal izateko, DSM-5-en irizpideak aztertu eta bete behar dira.

Azkenik, esan beharra dago ebaluazio psikopedagogikoan bildutako informazio eta datu guztiak jarraian agertzen den Nafarroako Gobernuko informean jaso behar direla.

1. - INFORME DE EVALUACIÓN PSICOPEDAGÓGICA

DATOS PERSONALES

Apellidos	Nombre
Fecha Nacimiento	Lugar
Domicilio	Teléfono
Localidad	
Centro	Nivel / Etapa

MOTIVO DEL INFORME

--

DATOS PSICOPEDAGÓGICOS

A.- Síntesis de la Evaluación Psicopedagógica y eje diagnóstico:
B.- Respuesta educativa y orientaciones:
C.- Recursos:
Informe realizado por:
Fecha y firma
Colaboración del módulo de CREENA:
Fecha y firma
Información al profesorado tutor:
Fecha y firma
Información a la familia:
Fecha y firma

Los profesionales que tengan acceso al contenido de este informe y/o de la evaluación psicopedagógica garantizarán su CONFIDENCIALIDAD. Serán responsables de su guardia y custodia las unidades administrativas en las que se deposite el expediente.

A.- EVALUACIÓN PSICOPEDAGÓGICA

A1.- Información sobre el alumno o la alumna

a) **Aspectos de la historia personal:** aspectos relevantes del desarrollo personal, informes médicos...

b) **Historia escolar:** centro o centros donde ha estado escolarizado/a, medidas adoptadas, último curso aprobado...

Datos actuales del desarrollo

c) **Valoración del desarrollo:** instrumentos aplicados, valoración de los diferentes ámbitos del desarrollo.

d) **Nivel actual de competencias (referente curricular).**

e) **Estilo de aprendizaje.**

A.2. Contexto escolar: datos del centro y aula, aspectos que favorecen y dificultan la respuesta educativa al alumno/a.

A.3. Contexto familiar y social: condiciones que influyen en los procesos de enseñanza- aprendizaje.

B.- RESPUESTA EDUCATIVA

B.1.- Adaptación curricular en cuanto a los elementos de acceso, áreas o materias y grado de adaptación de las mismas.

C.- RECURSOS NECESARIOS

C.1- Recursos personales necesarios:

C.2- Recursos materiales de acceso al currículo:

C.3- Intervención del Módulo Específico del CREENA de:




7.irudia. Ebaluazio psikopedagogikoaren informazioa jasotzeko informea.


3.3. Erabili daitezkeen tresnak

Atal honetan gida ezberdinetan proposatutako ebaluazio tresna batzuen adibideak azaltzen dira.

2.taula. Ebaluazio psikopedagogikoa burutzeko tresnen adibideak.

EBALUAZIO EREMUA	EBALUAZIO TRESNA	AZALPENA	TRESNAREN IRUDIA
Maila kognitiboa	Wechsler adimen eskala	Trebetasun kognitiboen maila edo haien funtzionamendu neuropsikologikoa zehazten du. Ahozko eta ez-ahozko test motako probak dira eta batzuk manipulatioak ere badira (euskadi.eus, 2013).	
Ebaluazio neuropsikologikoa	BRIEF-2	Exekuzio funtzioaren jarrera ebaluatzen da eta 5-18 urte bitarteko ikasleekin egin daiteke. (CREENA, 2019) Euskaraz balidatuta	

		dago ere bai.	
Hizkuntzaren garapena	ITPA	Illinois Psikolinguistika Trebetasunen Testa. 3-10 urte bitarteko ikasleekin egin daiteke (CREENA, 2019).	
Irakurketa- Idazketa	TALE 2000 EML PROLEC EUSKARA/PROLEC- R	Irakurketa-idazketa Magallanes Testa (6- 16 urte bitarte) Irakurketa prozesuen ebaluazioa (6-12 urte bitarte) (CREENA, 2019).	 
Lekuzko eta denborazko pertzepzioa eta antolaketa	Bender ikusmotor test gestaltikoa	5-11 urte bitarte (CREENA, 2019). 9 forma geometrikoen kopia egitean datza (ez- ahozko testa). Heldutasuna, garuneko	

		disfuntzioak eta pertsonalitate desbideratzeak aztertzen dira (tea, 2019).	
Garapen emozionala	TAMAI	Haur Adaptazio Test Multifaktorial Autoebaluatiboa (8 urtetatik aurrera) (CREENA, 2019).	

4. ESKU-HARTZEA

Esku-hartzea egokia eta guztiz eraginkorra izateko, dislexia duten ikasleak ulertzea baita haien ezaugarri ebolutiboak ezagutzea ere guztiz komenigarria da. Horretarako, Vegak, Soriano-Ferrerrek eta Rellok (2019) idatzi berri duten liburua irakurtzea lagungarria da. Izan ere, autore hauek dislexia duten pertsona batzuen esperientziak xehetasun handiekin azaltzen dituzte, baita haien garapena zein sentimenduak ere.

Era berean, Victor Widellek sortutako webgunea ezagutzea komeni da. Izan ere, web orrialde honek dislexia duten pertsona gehienek irakurtzerakoan bizitzen dutena modu bisualean simulatzen du. Sortzailea dislexia duen pertsona baten testimonioan oinarritu da. Hala ere, aipagarria da dislexia duten beste pertsona batzuek beste motatako egoerak ere bizitzen dituztela argitu dutela (Lerner, 2016).

Honi esker, profesionalek zein familiek dislexia duten ikasleak hobe ulertzeko eta enpatikoki jokatzeko ahalmen handiagoa dute.

Behin dislexia nahastea diagnostikatuta eta ikaslearen hezkuntza premiak ezagututa, esku-hartze egokia burutzeari ekin behar zaio. Horretarako, bai eskolak baita familiak ere hainbat alderditan modu jakinean jokatu behar dute.

4.1. Eskolan

Jarraian dislexia duten ikasleekin eskolan burutu beharreko esku-hartze egokia zenbait alderditan antolatuta azaltzen da. Alderdi horiek metodologia eta estrategiak, materialak eta jarduerak, ebaluazioa eta gizarte eta emoziozko alderdiak dira.

4.1.1. Metodologia eta estrategiak

Alde batetik, dislexia duten ikasleei irakurketa irakasterakoan metodo multisentsoriala erabiltzearen garrantzia azpimarratu beharra dago. Metodologia hau aldi berean hainbat zentzumen (ikusmena, entzumena, ukimena, mugimendua) bateratzen dituen metodo sistematiko eta esplizitua da. Izan ere, hizkuntzaren irakaskuntza eraginkorra izateko, esplizitua, zuzena, intentsiboa, metagarria eta hizkuntza estrukturan oinarritzen dena izan behar da.

Irakaskuntza multisentsorialak entzutezko bidea, ikusizko bidea, ukimen bidea eta bide kinestesikoak aldi berean inplikatzeko eta uztartzen dituzten hizkuntza oroimena eta ikaskuntza hobetzeko asmoz. Aldi berean ikusizko hizkuntzaren, entzundako hizkuntzaren eta ukimen-kinestesikoaren (sentitutako sinbolo linguistikoen) artean loturak sortzen dira eta hauek irakurketa eta idazketa ikasteko bideak dira. Irakasleek zein ikasleek ikaskuntza bide bakar batean zentratu beharrean 3 bidetan konfiantza dute; hitzaren oroimen metodoa, miaketa metodoa eta metodo fonetikoak. Esate baterako, ispilura begira ahoaren mugimenduak handizkatuz fonemak antzematea edo fonemak letra edo patroiekin erlazionatzea lantzen da.

Orobat, mugimendua ere uztartzen da; ikasleek keinuen bidez definizioak memorizatzen dituzte eta hitz-txartelak manipulatu esaldiak eta sailkapenak sortzen dituzte. Azken finean, eskua, gorputza edota mugimendua hizkuntzaren ulermena eta ekoizpena errazteko erabiltzen dira (con la Dislexia, 2014).

Argibidez, Vallespir Salas et. al (2010) ongi azaltzen duten moduan, Orton-Gillingham izena duen metodologia multisentsoriala da. Bide sentesorial guztiak batera estimulatzen dira, eta horren ondorioz, ikaskuntza aktiboa ematen da. Gainera, metodo honek ikaskuntza aukera berdintasuna bermatzen du, ezberdintasun

sentsorialak ikasle guztiek modu eraginkorrean ez ikastearen arrazoia baitira. Izan ere, soilik irakurriz edo entzunez ikasle guztiek ez dute modu esanguratsuan ikasten.

Ikaskuntzan grafikoek, diagramek, kontzeptu mapek, ordenagailuek, bideoek edo dena delako ikusizko laguntzek ikasle askori laguntzen diete. Beste ikasle batzuek, ordea, ideiak haien eskuetan manipulagarri izan behar dituzte. Funtsean, ikasle guztiek ikaskuntza funtzionalak eta esanguratsuak jaso ahal izateko eta eduki eta kontzeptu abstraktuak barneratzeko, beharrezkoak dituzten metodo zein estrategiak garatu behar dituzte.

Halaber, irakurketa eta idazketa irakasterakoan, Zabaleta Caballeroren (2013) hitzetan “gainikastea” praktika lagungarria eta eraginkorra da. Izan ere, irakurketa-idazketa berriro ikasten da bi irizpide errespetatuz; erritmoa ikaslearen ezaugarrietara egokitzea eta akatsik gabeko ikaskuntza burutzea. Era berean, metodo sintetikoak erabiltzea proposatzen du; hots, grafematik hasita, silabak, hitzak, esaldiak eta testuak lantzen dituzten metodologiaren erabilera.

Beste alde batetik, dislexia duten ikasleekin lan egiten duten profesionalek jarraian adierazten diren estrategiak, ideiak eta jokabideak praktikan jarri behar dituzte (con la Dislexia, 2014).

- Ikasleari interesa erakutsi eta lagunduko duzula ziurtatu ikaslea normalean dudatsua eta kezkatuta sentitzen da eta.
- Arreta indibiduala eskaini eta zalantzak galdetzera bultzatu.
- Ikaslea irakasletik gertu, arbeletik gertu edo lan egiteko eremutik gertu eta arreta galarazi dezaketen soinuen, materialen eta objektuetatik urrun kokatu.
- Agenda edo egutegiaren (ikusizko plangintzen) erabilera sustatu. Ikasleak azterketak, egitekoak edota entregatze datak agendan idatziz gero, antolakuntzan eta jarraipenean zeharo laguntzen diote.

- Ikasleak jarduera guztiak ongi ulertzen dituela ziurtatu, sarritan ulertzen ez baititu. Horretarako, jarduerak atal edo sekuentzia ezberdinetan bereizi eta pausuz pausu ulertzen duela ziurtatu. Ikaslea modu batean edo bestean jarduera guztiak ulertzeko gai da.
- Ikaslearentzat berria den informazioa behin baino gehiagotan errepikatu. Izan ere, arreta falta, epe laburreko memoria eta batzuetan arreta gaitasun urria du.
- Teknika edo jarduera berri bat menperatzeko beste ikasleek baino praktika gehiago behar dezake.
- Kontzeptu berriak aurreko esperientziarekin erlazionatzeko laguntza behar izanen du.
- Pentsamenduak antolatzeko eta lanak eta jarduerak bukatzeko denbora eman. Denbora presiorik egon ezean, lasaiago egonen da eta ikaskuntza jasotzeko egoera hobean egonen da; bereziki arbeletik kopiatzeko, apunteak hartzeko eta azterketak burutzeko.
- Ikasleari apunteen kopia bat erraztu irakasleak azalpenak eman bitartean oharrak har dezan.
- Gelako material guztietan letra tamaina handiak erabili eta lerroen arteko espazioa handitu.
- Ahozko informazioa eta ikusizko informazioa uztartu.
- Azalpena eman aurretik, hitz edo kontzeptu gakoak idatzi.
- Azalpen mnemonikoak eman; hots, hizkuntza erraza eta zehatza erabili.

- Gelako materialen azalpenak irakurtzeko laguntzaile bat jarri; batik bat azterketen azalpenak irakurtzeko. Askotan dislexia duten ikasleei gurasoek azalpenak ahoz irakurtzen eta birpasatzen dizkiete. Nahiz eta azalpenak irakurtzeko gai izan, sarritan ez dute irakurritakoa batere ulertu.
- Ikasleak idatzitakoaren akatsen zuzenketa sistematikoa saihestu. Soilik momentuan lan egiten ari den inguruko zuzenketak egin.
- Jarduerak gauzatzea beste ikasleei baino denbora gehiago kostatuko zaiela kontuan hartu behar da. Beste ikaskideak baino errazago nekatzen da, honenbestez, ikasleari eskatutako produkzioa arinago eta motzagoa izan (baina ez sinpleagoa) edo denbora gehiago eman behar da. Gainera, jarduerak errazenetik zailenera ordenaturik egotea komeni da. Helburu nagusia ikaslearen frustrazioa eta ukapena murriztea edo ez handitzea da.
- Ikaslearen lanaren inguruko berehalako feedback positiboa egin, betiere hobetu behar duena eta egiteko gai dena adieraziz. Ikaslearen esfortzua, garapena eta lana goraiatu eta adoretu behar da ikaskideekin konparatu gabe.
- Ikaslearen autoestimua garatzea bermatu behar da. Hortaz, gelan ekarpenak egiteko aukerak eman behar zaizkio. Era berean, bere ikaskideekin modu negatiboan alderatzea ekidin behar da baita bere zailtasunen inguruko txiste zein txantxak egitea ere. Gainontzeko ikaskideen aurrean irakurri nahi ezean, ez behartu eta nahi izanez gero, denborarekin abisatu eta prestatu. Berebat, beste ikaskideen aurrean notak ez irakurri. Buruenik, ikaslearen autoestimua garatzeko ikaslearen gaitasunak eta interesak erabiltzea lagungarria da.
- Ikaslearen ikaskuntza funtzionala eta esanguratsua bermatu. Honenbestez, idazketa eta irakurketaren ordezkioak diren eta ikasleak behar dituen instrumentu, metodo zein estrategiak aplikatu behar dira (kalkulagailuak,

magnetofonoak, grabagailuak, tabletak, irakurle elektronikoak, hiztegiak, ortografia, ahozko programen bidezko testuak, audio-liburuak...).

- Metodologia inklusiboak sustatu (elkarlanean ikasteko metodoak, ikaskideen arteko tutoretza, talde elkarreragileak, talde malguak...) (Zabaleta Caballero, 2013).
- Ez haserretu ikasleak hanka-sartzeak, nahasteak edota ahazteak dituenen. Izan ere, material bat beste batekin nahastea, materialak galtzea edo ariketaz okertzea zeharo arrunta da (Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña, & Vicente, 2017, 59 orr.).

Orobat, Errioxako gobernuak (2019) argitaraturiko protokoloan beste hainbat jarraibide gehitzen dira.

- Beharrezkoak diren baliabide pertsonalak (logopeda, PT, orientatzailea, beste irakasleak ...) zehaztu eta guztien arteko elkarlana bermatu.
- Beharrezkoak diren baliabide material guztiak (programak, irakurleak, zuzentzaileak, itzultzaileak ...) zehaztu eta aplikatu.
- Ahozko azalpenetan ikaslearen arreta keinuekin, ahoskera eta intonazioarekin ... deitu.
- Glosarioen erabilera sustatu. Ikasgai guztietan gai bakoitzaren hasieran termino garrantzitsuen glosarioa egin.
- Aldi berean idaztea eta entzutea eskatzen duten ariketak (diktaketak ...) saihestu.

4.1.2. Materialak eta jarduerak

Vallespir Salasen eta beste adituen (2010) hitzetan, dislexia duten ikasleek curriculum egokitzapen indibidual ez esanguratsuak jaso behar dituzte; hau da, ikaslea ikaskuntza

jaso ahal izateko beharrezkoak dituen tresna metodologikoez eta sarrera elementuez hornitu beharra dago.

Honenbestez, lehenik eta behin, material zein ariketa guztien formatua ikaslearentzat egokia izan behar da. Dyslexia Scotland-ek (2018) dislexia duten ikasleentzat informazioa irisgarria izateko jarraibide batzuk proposatzen ditu:

- Pastel-kolorea duten orrialdeak erabili.
- Paper matea erabili (lilura murrizteko).
- Atzealde zuria duen orrialdean beltz koloreko testua eta atzealde beltza duen orrialdean testu argia saihestu.
- 12<-ko letra tamaina erabili.
- Letra mota argiak, borobilak eta hizkien artean bereizketa dutenak erabili. Esaterako, Arial, Comic Sans, Century Gothic, Verdana eta Tahoma.
- 1,5-eko lerro-arte edo lerro-arte bikoitza erabili.
- Marjina zabalak erabili.
- Letra minuskulak letra larriak ordez erabili.
- Prosa jarraitua egin beharrean bineta zenbakituak edo bereiziak erabili.
- Testu garrantzitsua nabarmentzeko ertzak erabili.
- Hitzak elkartzea eragin ditzakeen azpimarratzeak edo bestelakoak saihestu.
- Kontzeptu edo ideia garrantzitsuak nabarmentzeko letra lodia erabili.
- Kolore kodigoak erabili; adibidez, informazioa kolore batean eta erantzunak beste batean adierazi.
- Testu luzeak azaltzeko jarraitzeko errazak diren diagramak, eskemak, ilustrazioak ... erabili.
- Idatzitako esaldiak errazak eta motzak izan behar dira.
- Paragrafo motzak idatzi.
- Orrialdean testu asko idaztea saihestu.
- Testu desordenatua saihestu.
- Galderak erantzuteko espazio nahikoa utzi.

Aipatutako jarraibide guztiak kontuan hartuta, irakaskuntza eremu bakoitzean ere zenbait aspektu kontuan hartzea eta jarraitzea gomendagarria da. Jarraian,

irakurketan, idazketan, matematikan, galderak erantzuten irakastean, azterketak prestatzen irakastean eta autoinstrukzioak ematen irakastean erabili daitezkeen jarduerak proposatzen dira. Era berean, ariketa mordoa proposatzen dituzten web orrialde batzuen berri ematen da.

➤ Irakurketa:

Irakurketaren irakaskuntzari dagokionez, irakurketa bere osotasunean landu behar da; hots, irakurketa sistemaren osagai guztien lanketa garrantzitsua da. Beraz, kontzientzia fonologikoa eta deskodetzea, hiztegia, jariakortasuna eta ulermena lantzeko ariketak burutu behar dira.

Jarraian ikastalde osoarekin gelan irakurtze sistemaren osagaiak lantzeko nik sortutako ariketaren bat adibide moduan adierazten da. Hala ere, eranskinetan osagai ezberdinen arabera antolatutako jarduera gehiago jasotzen dira. Aipatzekoa da, dislexia duen ikaslearekin kontuan hartu beharreko aspektuak aipatzen direla.

Kontzientzia fonologikoa eta deskodetzea lantzeko, esaterako, hitzen silabak ordenatzea edota zenbatzea eta hitzen hizkiak ordenatzea praktika ona izango litzateke.



8.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa.

POZA: 2 SILABA
 ALAITASUNA: 5 SILABA
 TRISTURA: 3 SILABA
 AMORRUA: 4 SILABA
 BARETASUNA: 5 SILABA
 BELDURRA: 3 SILABA
 NAZKA: 2 SILABA
 ERRUA: 3 SILABA
 ASPERKIZUNA: 5 SILABA



9.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa.

UNARDI
 BRDAEE
 ASROAR
 NLARAAJ
 HRIOA
 REMAO
 ZBAELT

10.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa.

Hiztegia lantzeko, besteak beste, letra zopak edota sinonimo eta antonimoak lantzeko jarduerak aproposak dira. Letra zoparen kasuan, dislexia duen ikasleari hitzen lehenengo hizkia nabarmentzea lagungarria da.

KOLOREETAKO MUNSTROA

H	O	Q	E	X	N	Z	H	N	U	G	Z	G	J	K
C	J	K	L	Q	D	B	P	R	A	H	Y	J	R	X
N	B	X	P	D	H	H	U	T	S	U	N	E	A	L
K	A	O	S	I	T	S	A	S	O	A	Z	D	P	X
I	J	H	N	A	N	P	O	Z	I	K	T	L	S	N
H	G	L	A	T	L	B	F	D	I	S	T	I	R	A
H	D	N	A	S	Z	A	U	L	Q	Y	K	Q	D	F
U	K	A	V	Q	T	I	I	Z	O	H	L	D	J	X
N	S	B	N	N	D	U	A	T	J	H	I	S	A	L
S	S	L	B	T	K	T	T	L	A	R	W	U	H	C
T	K	C	Q	B	Z	E	T	A	S	Q	E	H	Q	
R	O	Y	E	V	W	A	J	V	N	D	U	H	K	T
O	U	I	E	R	U	H	A	U	U	D	Z	N	J	A
A	A	A	T	P	E	R	F	R	T	F	W	I	A	R
Y	T	R	I	S	T	U	R	A	H	L	Y	L	A	J

ALAITASUNA HUTSUNEA NAHASTUTA TRISTURA
DANTZA ITSASOA ONEZIA
DISTIRA MUNSTROA POZIK

KOLOREETAKO MUNSTROA

H	O	Q	E	X	N	Z	H	N	U	G	Z	G	J	K
C	J	K	L	Q	D	B	P	R	A	H	Y	J	R	X
N	B	X	P	D	H	H	U	T	S	U	N	E	A	L
K	A	O	S	I	T	S	A	S	O	A	Z	D	P	X
I	J	H	N	A	N	P	O	Z	I	K	T	L	S	N
H	G	L	A	T	L	B	F	D	I	S	T	I	R	A
H	D	N	A	S	Z	A	U	L	Q	Y	K	Q	D	F
U	K	A	V	Q	T	I	I	Z	O	H	L	D	J	X
N	S	B	N	N	D	U	A	T	J	H	I	S	A	L
S	S	L	B	T	K	T	T	L	A	R	W	U	H	C
T	K	C	Q	B	Z	E	T	A	S	Q	E	H	Q	
R	O	Y	E	V	W	A	J	V	N	D	U	H	K	T
O	U	I	E	R	U	H	A	U	U	D	Z	N	J	A
A	A	A	T	P	E	R	F	R	T	F	W	I	A	R
Y	T	R	I	S	T	U	R	A	H	L	Y	L	A	J

ALAITASUNA HUTSUNEA NAHASTUTA TRISTURA
DANTZA ITSASOA ONEZIA
DISTIRA MUNSTROA POZIK

11.irudia. Hiztegia lantzeko ariketa.

			
POZIK	ALAI	POZIK	TRISTE
			
TRISTE	GOIBEL		
			
HASERRE	AMORRU	HASERRE	BARE

12.irudia. Hiztegia lantzeko ariketa.

Irakurtze jariakortasuna lantzeko, ordea, bikoteka irakurtzea eta erronbo bidezko irakurketa moduko ariketak egitea komenigarria da. Azken honetan, dislexia duen ikasleari irakurri beharreko esaldia nabarmenduko zaio.

Ane
lastargi bat hartu
eta kobazulora sartu zen.
Su txiki bat piztu zuen eta iskina batean eserita,
bere aitona Pedro itxaron zuen. Aitona iristerakoan,
Ane oso pozik jarri eta besarkada erraldoi bat eman zion bere Pedro kuttunari.
Ondoren, marrazkitxo bat margotu zuten eta
menditik buelta bat ematea erabaki zuten.
Egun zoragarri horretan,
herrian goxo-goxo
afaldu
zuten.

Ane
lastargi bat hartu
eta kobazulora sartu zen.
Su txiki bat piztu zuen eta iskina
batean eserita, bere aitona Pedro itxaron
zuen. Aitona iristerakoan, Ane oso pozik jarri
eta besarkada erraldoi bat eman zion bere Pedro
kuttunari. Ondoren, marrazkitxo bat margotu
zuten eta menditik buelta bat ematea
erabaki zuten. Egun zoragarri
horretan, herrian goxo-
goxo afaldu
zuten.

13.irudia. Irakurketa jariakortasuna lantzeko ariketa.

Azkenik, ulermena lantzeko, argibidez, testu baten atal ezberdinak ilustratu daitezke.


Testua:	Marrazkia:
Gaur astelehena da eta Getari etxetik atera da eskolara joateko. Getarik motxila bat eramaten du atzean eta oso pozik dago.	
Klaseko erlojuan goizeko bederatziak dira. Eguzkia atera da eta eguraldi bikaina egiten du.	

14.irudia. Ulermena lantzeko ariketa.

Bestalde, esan beharra dago irakurri beharreko lerroa erregela batekin, kartoi mehe batekin edota orri-markatzaile batekin zehaztea lagungarria dela.


Egia da dislexia duten ikasleekin bereziki kontzientzia fonologikoa landu behar dela, bertan zailtasun handienak dituzte eta. Horregatik, kontzientzia fonologikoa gelan lantzeko material ugari daude. Besteak beste, EOEP Ávilak eta CREENA-k sortutako materialak gazteleraz egon arren, oso egokiak dira. Hortaz, dislexia duten ikasleentzat materialak euskaraz sortzerako orduan, jarduera hauetan oinarritzea aproposa izango litzateke.

"pon cruces o gometas según el número de sílabas de cada palabra"




15.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa. (EOEP Ávila eta CREENA)

"une los objetos que empiezan por la misma sílaba"







16.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa. (EOEP Ávila eta CREENA)

"si a..... le quitamos nos queda..... dibújalo"












17.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa. (EOEP Ávila eta CREENA)

"Une los dibujos con la letra que terminan"

		R
		S
		N
		L


18.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa. (EOEP Ávila eta CREENA)

"completa la palabra con la letra que falta"

 ARBO_	 GRI_	 FLO_
 SO_	 _AZO	 CO_A
 _A_O	 CA_A	 CA_A

19.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketa. (EOEP Ávila eta CREENA)

Berebat, Errioxako Gobernuak (2019) argitaratutako gidan Haur Hezkuntzan zailtasunen prebentzio moduan kontzientzia fonologikoaren estimulazioa burutzeko landu daitezkeen ariketa interesgarri eta apropos ugari proposatzen ditu X.eranskinean.



20.irudia. Kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketak (Errioxako Gobernua, 2019).

Amaitzeko, behin ikasleak irakurketa gaitasuna garatuago duenean, “Mi viaje a París” bezalako ipuinak, sasi-hitzeekin sortutakoak, lantzea interesgarria da. Izan ere, ikasleak sasi-hitzak aurkitzen saiatu behar dira eta horiek ongi idatzi (Educación 3.0., 2020).

podíamos parar. De pronto mi padre miró el reloj y dijo: niños cada uno su maleta que en diez minutos sale el avión. En mi vida había corrido tanto. Mi padre iba primero con la maleta más grande y mi hermano Alejandro de la mano, que ya no lo saltaba, aunque él protestaba, porque quería ir solito.



21.irudia. Mi viaje a París ipuina.

➤ Idazketa:

Idazketari dagokionez, berriz, ortografia lantzea funtsezkoa da. Honenbestez, Gabarrok (2012) ikasleen ortografia hobetzeko proposatutako materiala lantzea gomendagarria da. Bere proposizioaren funtsa ikasleek hitzak idazterakoan ikus memoriaren bitartez

ibilbide fonologikotik ibilbide lexikora pasatzea da. Metodo honi esker, ortografia akatsak murrizten dira eta hauei aurrea hartzen zaie. Izan ere, ikus biltegian gerotik eta hitz gehiago izatekotan, ibilbide lexikoaren erabilera indartzen da eta akatsak gutxitzen dira. Metodoaren lehendabiziko pausua maiztasun handiko hitzen lanketarekin hastea da. Horretarako, hitzei kolore eta irudi jakin batzuk esleituko zaizkie eta jarraitutasun batekin ikasleekin landuko dira. Honen bitartez, ikasleek hitz horien bisualizazioa edo irudia memorizatuko dute. Ikasleei garunean hitzak bisualizatzeko estrategia irakatsi behar zaie; alegia, ikasleak hitzak entzuteetik hitzak ikustera pasa behar dira. Bisualizazio hori nola egiten den ulertzea ikasleei erru sentimendua kentzen die eta arrakasta izatera bultzatzen die.

Behin hitzen bisualizazioa nola egiten den ulertuta, memoria bisuala indartu behar da. Esaterako, binaka figura ezberdinekin eta kolore ezberdinekin jolas batzuk egingez. Ikasleek ikusi eta oroitu behar dituzte eta gero, horren inguruko galderak egingo zaizkie, hauei erantzuna emateko memoria bisuala erabili beharko dute eta. Hasieran, bi figurekin hasten da, gero, behin biak oroituta, beste bat gehitzen da eta horrela zailtasuna handiagotuz ... 4 figura oroitzen dutenean aski eta nahikoa da, dagoeneko memoria badute eta memoria bisuala indartzen da.

Horren ostean, memoria bisuala ortografiarekin lotu behar da. Entzutezko pertsonak ikustezko pertsonak izatera pasa behar dira. Horretarako, txartel koloretsu batzuekin (hitzak dituzten txarteletan) lantzen da; letra bakoitza kolore batekoa da. Ikasleak bikoteka jarri behar dira eta txartel bat norbera bere bikoteari erakutsi behar dio. Ondoren, begiak itxi behar ditu hitza oroitzuz (buruan izanik), eta besteak egiten dizkion galderak erantzunez (zein da lehenengo hizkia? Ze kolorekoa da bigarren hizkia? Zein da azkeneko hizkia ...). Galdera hauek soilik hitzak ikusiz erantzun daitezke. Beraz, hitza memorian bisualizatu behar dute hitzaren inguruko galderak erantzun ahal izateko. Honen bitartez memoria bisuala lantzen da, eta 4 hizki oroitzen direnean, gero hurrengo pausora pasatzen da.

Oinarrizko hiztegia ikastea da hurrengo urratsa. Horretarako 2 estrategia daude: baliabide informatikoa eta txartelak. Oinarrizko hiztegia irakatsi behar da maiztasun handiko hitz hauek gainontzeko akats asko ekiditen baitituzte.

Baliabide informatikoari dagokionez, ikasleei 200 hitzen inguruan (akats gehien sortzen dizkienak) galdetzen zaie. Orobat, ikasle bakoitzak akats egiten duen hitzen inguruan ere galdetu daiteke, edozein erantsi baitaiteke; hots, ikaskuntza pertsonalizatua bultzatzen du. Gainera, hizkuntza aukera asko ditu.

Txartelen baliabidearen bitartez 25 hitzeko multzoak modu erraz batean irakasten dira. Hitz horiek dituzten txartelak inprimatzen dira hauek moztu eta gutun-azal batean gordetzen dira. Ikasle bakoitzak 4 gutun-azal ditu eta hitz horiek galdetzen zaizkio. Gaizki egiten dituztenak 1.gutunazalean gordeta daude, ongi egiten dituztenak, aldiz hurrengo gutun-azalera pasatzen dira. Hortaz, 4.gutunazalean amaitzen duten hitz guztiak ikasita daude (3 alditan ongi egin baitituzte). Bestela, 1.gutunazalera pasatzen dira berriro. 4.gutunazaleko hitzak galdetzen dira soilik aseguratzeko ikasleek ongi ikasten dituela. Horrela, 25 hitz ikasten dituzte eta behin horiek guztiak ikasita, beste 25 hitz berri gehitzen dira. Honi esker, ikasleek hiztegi orokorra (maiztasun handiko hitzak) erabat barneratzen dute eta ortografia akatsak murrizten dituzte.

Era berean, zenbait gidek idazketa lantzeko ariketa eta jolas aproposak jasotzen dituzte; besteak beste, Aragoiko Gobernuak (2017) argitaratutako gidan.

Adivinando:

- > Es importante que el alumnado aprenda a encontrar en los textos pistas que puedan guiar la lectura: portada, títulos, ilustraciones, etcétera.
- > Jugar a utilizar estas pistas para prever o adivinar el contenido del texto.
- > Estimular la imaginación. Anticipar, prever, estimar. Con los libros de conocimientos podemos invitarles a anticipar las características de un objeto o animal, por ejemplo, y luego cerciorarse de si lo han acertado o no consultando el texto.
- > Inventar distintas formas de continuar un texto, una frase, un cuento, etcétera.

Jugando con las letras:

- > Se trata de que aprendan la correspondencia entre letras y sonidos.
- > Se puede jugar a comparar palabras, a encontrar semejanzas y diferencias entre los nombres por su longitud, coincidencia de algunas letras, la terminación o inicio de palabras semejantes, adivinar los nombres de palabras por la primera inicial en carteles, letreros, etcétera. Se debe plantear siempre como un juego.
- > Siempre podemos disponer de determinados juegos comerciales o elaborados en casa: Scrable, juegos de parejas de palabras al estilo de Memory, Scattergories, Intelect, el ahorcado, etcétera.

22.irudia. Idazketa lantzeko ariketak eta jolasak (Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña & Vicente, 2017, I.eranskina).

Compartiendo lecturas para facilitar la motivación:

- > Se trata de acceder a cierta variedad de lecturas sin necesidad de comprarlas todas ellas. Para ello, acostumbrarles a compartir con sus amigos y amigas sus libros y cuentos, acostumbrarles a anotar en un registro los libros prestados, y a tener organizados sus libros animándole a que organice su propia biblioteca con nuestra supervisión.
- > Guardar momentos para intercambiar opiniones sobre sus gustos y libros preferidos, contarle nuestros gustos y libros de los que guardamos un recuerdo especial en nuestra infancia. Se pueden proponer nuevos géneros acordes con la edad (aventuras, intriga u otros).

Visitando la librería y la biblioteca:

- > Podemos recabar información sobre los libros, enseñarles a elegir un buen libro ("el mejor libro, es el que más gusta a cada lector").
- > Pidamos consejo sobre qué libro regalar a un amigo o amiga, a un hermano o hermana.
- > En la biblioteca pueden entender la diversidad de propósitos que tenemos al leer: divertimos, aprender, estar informados, hacer tareas.
- > También es interesante que conozcan otros tipos de formato de lectura que existen, tales como revistas para el público infantil y comics.
- > Las revistas infantiles suelen ofrecer una sección de pasatiempos: sopas de letras, crucigramas y otros juegos. Realizarlos resulta de gran ayuda para mejorar capacidades que tiene que ver con el descifrado y la comprensión de textos.

23.irudia. Idazketa lantzeko ariketak eta jolasak (Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña & Vicente, 2017, I.eranskina).

➤ Matematika:

Orobat, Dyslexia Scotland-ek (2018) dislexia duten ikasleei matematika arloan laguntzeko hainbat aholku eta ideia proposatzen ditu. Honenbestez, matematika jarduerak prestatzerako orduan kontuan hartu beharreko aspektuak dira.

Alde batetik, esperientzia praktikoak eta errealak erabiltzea komenigarria da; hau da, bizitzan erabili daitezkeen ezagutzak lantzea proposatzen da. Esate baterako, diruaren lanketa gauzatzea eta erosketak egitera joatea.

Beste alde batetik, material manipulagarriak erabiltzea proposatzen da; argibidez, zenbaketa lantzeko blokeak erabili, zatikiak lantzeko tartak edota pizzak erabili, zenbakiak lantzeko urtebetetzeak, mahai jolasak edota telefono zenbakiak erabili, sinbolo berdintsuak antzemateko kartak erabili, denboraren nozioa lantzeko orduak erabili, pisuak eta neurriak lantzeko sukaldaritza landu ...

Azkenik, irakasleak hitz egiterako orduan kontzeptu matematikoak (“handiago”, “txikiago”, “gehiago”, “gutxiago”, “berdina”, “zenbat”...) erabiltzea aholkatzen da.

➤ Galderak erantzuteko jarraibideak

Aurretik aipatutako oinarrizko irakaskuntza arloez (irakurketaz, idazketaz eta matematikaz) aparte, ikasleei galderak erantzuten edota azterketen prestaketa egiten irakatsi behar zaie zailtasunak baitituzte. Beraz, dislexia duten ikasleekin klasean galderak nola erantzuten diren landu beharra dago (Dyslexia Scotland, 2018).

Alde batetik, galderen hitz nagusi eta nabarmenak identifikatzen eta sailkatzen irakatsi beharra dago.


3.- Subraya esas partes de la pregunta. Por ejemplo:

“**Compara y contrasta formas de asentamientos rurales**
 en **al menos dos regiones europeas** en la **última Edad Media**”
 #Instrucción #Tema #Aspecto clave #Otras palabras significativas

24.irudia. Galderak erantzuteko jarraibideak lantzeko ariketa. (Dyslexia Scotland, 2018)

Bestetik, ikasleei galdera erantzuten lagunduko dieten irudiak erabiltzen irakatsi behar da; hots, argazkiak aztertzen, konparatzen, erlazionatzen ... irakatsi behar da.

Buruenik, erantzuna antolatzeke eskema edo kontzeptu mapa egiten ikastea lagungarria da; adibidez:



25.irudia. Galderen erantzuna antolatzeko kontzeptu mapa.

➤ Azterketen prestaketa

Arestian esan bezala, dislexia duten ikasleekin azterketen prestaketa landu beharra dago eta estrategiak irakatsi behar dira (Dyslexia Scotland, 2018). Alde batetik, azterketa prestatzeko denbora antolatu eta planifikatu behar da; hots, ordutegi eta egutegi bat sortzearen lanketa burutu behar da guztiz lagungarria da eta.

Errepasoa egiterakoan, azterketan sar daitezkeen galderak gaika antolatu eta apunteak irakurri ordez, software programak erabiliz hauek entzun. Dagoeneko ikasitakoa idaztea komenigarria da ikasteke dagoena erraz identifikatzeko. Orobat, datu nagusiak gaiaren arabera kolore jakin batez azpimarratzea lagungarria da.

Bestetik, marrazkiak, eskemak, kontzeptu mapak, diagramak, grafikoak ... sortzeak kontzeptu eta ideiak barneratzen zeharo errazten du. Honekin lotuta, ideien arteko asoziazio eta erlazioak egitea edota istorio moduan ikastea ere lagungarria da.

Azterketa burutzeko software jakin bat behar izanez gero ikasleak eskatzera ohitu behar dira. Modu berean, azterketetan denbora gehigarria (%25) eskatzeko ohitura hartu behar dute haien eskubidea da eta.

➤ Autoinstrukzioak

Sant Joan de Déu Bartzelonako opitaleak (2017) ikasleek egunerokotasunean modu eraginkorrean eta arrakastatsuan jokatzeko ikasleen adinaren arabera autoinstrukzio-liburu ezberdinak sortu ditu.

Ikasle guztiak erabiltzeko material egokia da. Izan ere, material eramangarria, eraginkorra eta baliagarria da erabat. Ikasleak eguneroko ohituretan, hizkuntzetan eta matematikan modu esanguratsuan trebatzeko eta barnerratzeko xedearekin sortu da.

Dislexia duten ikasleekin alderdi emozionala lantzeko material aproposa da ikaslearen autoestima, autokontzeptua... indartzen laguntzen du eta. Gainera, autoinstrukzio-liburuak dislexia duten ikasleekin lantzeko formatu aparta du. Ulermen errazekoa da, oso bisuala da, testu gutxi eta irudiak batez ere erabiltzen dira eta hitz nagusiak nabarmentzen dira.

Jarraian materialaren hainbat adibide azaltzen dira:

Ahalik eta etekin gehien ateratzeko pausoak (II)

1



Agenda begiratzea.

2



Lanak **planifikatzea** (etxeko lanak eta azterketak).

3



Zenbat **denbora** behar izan dudana begiratzea.

4



Lehendabizi lan **zailak/presakoak**.

5



Lanak **egitea**.

- 11 -

26.irudia. Lan ohiturak burutzeko autoinstrukzioak.

Irakurmena

1



Testua **esaldiz esaldi** irakurtzea.

2



Hitz edo **ideia garrantzitsuenak** azpimarratzea.

3



Marrakzi edo **eskema** bat egitea.

4



Testu osoarekin gauza bera egitea.

5



Istoria nire hitzekin azaltzea.

- 18 -

27.irudia. Irakurmenerako autoinstrukzioak.

Idazlan bat egiteko pausoak (I)

1 Noiz?

2 Nor?

3 Non?

4 Zer gertatzen da?

5 Nola amaitzen da?

- 23 -

28.irudia. Idazlan bat egiteko autoinstrukzioak.

Zatiketak egiteko pausoak

1 Bereiztea.

2. ko **taulan** **8**. zer zenbakik egiten duen **pentsetza**.

3 **Biderkatzea** eta buruan eustea.

4 **8**.ra heltzeko.

5 Hurrengoa **jaistea** eta **2**. pausora itzultzea.

- 29 -

29.irudia. Zatiketak egiteko autoinstrukzioak.

➤ Ariketen web orrialdeak

Buruenik, esan beharra dago sarean dislexia duten ikasleentzat eraginkorrak diren ariketak eta jolasak proposatzen eta jasotzen dituzten web orrialde zein blog aunitz daudela.

Horietako batzuk Orientación Andújar (<https://www.orientacionandujar.es/2014/01/20/actividades-para-trabajar-la-dislexia-distinguimos-palabras-inventadas/>), PTYAL (<https://ptyalcantabria.wordpress.com/category/dislexia/page/1/>), CEI PLORETO (<http://www.ceiploreto.es/>), ladislexia.net (<http://www.ladislexia.net/definicion/libros-y-materiales/recursos-practicos/>) eta BREAL (<http://dislexia-breal.blogspot.com/p/materiales-de-reeducacion.html>) web orrialdeak dira, ariketa, jolas eta baliabide mordoak jasotzen dutenak. Halaber, Zipigelan blogean (<http://zipigelan.blogspot.com/2015/02/dislexia-lantzeko->

[materia.html](#)) dislexia duten ikasleekin euskaraz arlo ezberdinetan landu daitezkeen ariketak eta jolasak zein erabilgarriak diren baliabideak proposatzen dira.

4.1.3. Ebaluazio akademikoa

Ebaluazio akademikoari dagokionez, Errioxako Gobernuak (2019) adierazi duen moduan, alderdi guztietan ikasleen premiak kontuan hartu behar dira. Honenbestez, ikasgai guztietan hezitzaileek ebaluazio estandarrak ikaslearen gaitasunen arabera egokitu beharko dituzte. Era berean, azterketa edo frogak burutzerakoan, denbora ikaslearen ahalmenetara egokitu behar da eta orokorrean ikastaldeari eskainitako denbora baino gehiago eman behar zaio, baita denbora kontrolatzen lagundu ere. Gainera, ikasleak ikasitakoa eta barneratutakoa benetan frogatzeko, azterketa motak tartekatzea ezinbestekoa da; besteak beste, ahozko azterketak, bideo bidezko azterketak, poster baten bidezko aurkezpenak...

Ikaslea gaitua eta ahalmentsua den alderdietan goraiatu behar da eta baloratu ere bai (Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña & Vicente, 2017, 68.orr.). Dislexia duten ikasleek, sarritan, margoketan, kirolean, heziketa fisikoan, eskulanetan, informatikan, musikan... ahalmen handia dute.

Idatzizko azterketek dislexia duten ikasleei zailtasunak sorrarazten dizkietela kontuan hartu behar da. Beraz, gainontzeko frogak motak egitea lehenetsi behar da. Halere, idatzizko azterketa egitekotan, irakasleak enuntziatuak ozen irakurri, azaldu eta ulertu direla egiaztatu beharko du. Horretarako, Boleak, Condek, Panaderok, Pérezek, Valtueñak eta Vicentek (2017) aipatzen duten moduan, ikaslearen ulermena bermatzeko azalpena ematerakoan ulermena erraztuko duten adibideez baliatzea oso garrantzitsua da.

Berebat, eduki zama murriztearren, azterketa laburragoak (baina ez errazagoak) egitea ere komenigarria da, galdera kopurua murriztuz, esaterako. Era berean, ortografia akatsen penalizazioa egokitu behar da, hauei garrantzia kenduz, dislexia duten ikasleek horiek automatizatzeko zailtasunak dituzte eta; alegia, ortografia akatsek ezin dute ebaluazioa mugatu.

Bestalde, idatzizko frogen formatuari dagokionez, galdera motzak, erantzuna hautatzekoak, egia-gezurra motatakoak, esaldiak osatzeko modukoak edota erantzunak erlazionatzekoak lagungarriak dira. Orobat, testu kopiaketak eskatzea ekidin behar da (Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña & Vicente, 2017, 68.orr.). Aurretik esan bezala, letra mota argia eta tamaina handikoa erabiltzea, lerroen artean tartea uztea eta hitz gakoak nabarmentzea funtsezkoa da. Halaber, matematikako frogetan biderketa taulak, kalkulagailua, formulak... erabiltzen uztea lagungarria da.

Buruenik, aipatzekoa da denborarekin azterketen egutegia ikasleekin batera ezarriz gero, ikaslearen antolaketa eraginkorra dela eta azterketa arrakastatsuak burutzea gertagarria dela.

4.1.4. Gizarte eta emozio alderdiak

Samuel T. Orton dislexiak dakarren aspektu emozionalak aztertutako lehendabizikoetariko ikertzaile bat izan zen. Lehen Hezkuntzan dislexia diagnostikatutako ikasleen gehiengoa Haur Hezkuntzan zoriontsua zela eta taldean guztiz integratuta zegoela konprobatu zuen. Orobat, ondorio emozionalak irakurketaren ikaskuntzarekin batera hasten zirela eta urteak pasa ahala frustrazioa handitzen zela egiaztatu zuen. Honenbestez, Ortonek hezitzaileek emozioak entzun ezean eta frustrazioari kasurik egin ezean, ikasleek aise porrot egiten zutela ondorioztatu zuen.

Dislexia duten ikasleen esfortzua ez da guztiz baloratzen, sarritan taldetik bereizirik daude eta ezgai moduan ikusten dira, haiek euren burua barne; alegia, pertsona dudatsuak bilakatzen dira, autoestimua gutxitzen dute eta autokontzeptu negatiboa sortzen dute. Hau dela eta, talde kohesioa eta errespetua lantzea ezinbestekoa da. Esan beharra dago dislexiak estresa edota depresioa ere eragin dezakeela (con la Dislexia, 2014, 26-29 orr.).

Beraz, argi eta garbi dislexia duten ikasleek ondorio akademikoez aparte psikologikoak ere jasotzen dituzte. Horregatik, irakasle orok ikasleen ongizatea bermatzeko estimua zaindu behar du; argibidez, ikasleari berak dituen zailtasunak ezagutzen dituela eta bera laguntzeko dagoela ikusarazi behar dio, ikaslearen lana eta esfortzua (emaitza

beharrean) baloratu behar du, feedback positiboa eman eta aldioro ikaslea estimulatu behar du, inongo konparaketarik egin gabe ikaslearen erritmoa errespetatu behar du, ikaslearen lan egiteko moduz interesa erakutsi behar du eta modu errealistan bere ahamenetara egokitutako ardurak eman behar dizkio (Bolea, Conde, Panadero, Pérez, Valtueña eta Vicente, 2017, 66 orr.).

Ikasleen hezkuntzan irakaslearen jarrerak eragin handia du eta horren jakinaren gainean egotea ezinbestekoa da. Pigmalion deituriko efektua aipatutakoaren adierazle argia da. Izan ere, Pigmalion efektuaren funtsa hezitzaileen itxaropenak ikasleen jarreraren eta ikaskuntza garapenaren eragile direla eta hauek zeharo baldintzatzen dituztela konprobatzea da (Guillén, 2012).

Ikasleen autokontzeptu zein autoestimua hobetzeko jarduera eraginkorretariko bat ikasleek haiek baino gazteagoak diren ikasleei ipuinen bat kontatzea edota antzerki bat egitea da. Honi esker, ikasleak trebe sentitzen dira baita autoestimua hobetzen dute ere beti porrot egiten ez dutela sentitzerakoan eta gai direla sentitzerakoan.

Honen guztiaren ondorioz, arestian esan den bezala, dislexia duten ikasleen eskolaporrota handia denez, arazoari aurre hartu beharra dago eta hezkuntza emozionala horren oinarria da.

4.2. Familian

Dislexia duten ikasleen familiek haurra laguntzeko egin dezaketenaren inguruko orientabide batzuk jasotzea komeni da. Izan ere, ikaslearen familiak duen eginkizun nagusienetariko bat alderdi emozional zein sozialari dagokio. Honenbestez, familia eta eskolaren arteko elkarlana ezinbestekoa da.

Lehenik eta behin gurasoek kontuan hartu behar dute haien itxaropenek haurraren garapena zeharo baldintzatzen dutela eta eragina handia dela. Hortaz, gurasoek ikasleengan konfiantza izan behar dute eta errefortzu positiboaren erabilera egin behar dute; alegia, seme-alabaren erritmoa eta gaitasunak errespetatu eta egindako esfortzua goraiatu behar dute, gehiegizko babesera ailegatu gabe. Esfortzuaren bitartez nahiak arrakastaz lor ditzaketela irakatsi behar dute eta ez dute beste hurrekin inongo konparaketarik egin behar. Gurasoen antsietateak edota kezkek

ikaslearen ongizatea kaltetzen dute. Era berean, haurrak autoestimu egokia garatzeko porrot egoeretan gurasoen laguntza funtsezkoa da. Eta honekin lotuta, erlaxazio tekniken erabilera oso lagungarria da ere bai. Beraz, familiak batik bat ikaslearekiko enpatia garatu behar du eta ikaslearen emozioak aldioro entzun eta horiekiko interesa piztu behar du.

Bestalde, haurrekin elkarbizitza erraza izatearren, dislexiak eragiten dituen ondorio guztiak ongi ezagutzea ezinbestekoa da. Gurasoek horren inguruan informatu eta eskolan profesionalei laguntza zein orientazioa eskatu behar dute. Halaber, ikaslearekin bere zailtasunez hitz egitea komenigarria da, hots, bere zailtasunen inguruko elkarrizketetan sartzeari onuragarria da. Haurrak bere adinera egokitutako hizkera erabiliz, bere zailtasunen inguruko azalpenak eta argibideak jaso behar ditu.

Familiak ikasleari inguru seguru eta egonkorra eskaini behar dio; horregatik, etxean estruktura eta errutina bat mantentzen saiatu behar dira, haurrek errepikapen maiztasunaren bitartez gauzak barneratzen baitituzte (Angulo-Domínguez et al. , 2011, 42-46 orr.).

Jarraian familiak dislexia duen ikaslea laguntzeko kontuan hartu behar dituzten zenbait jarraibide adierazten dira.

3.taula. Familiaren esku-hartzea.

<p align="center">ESKOLAKO EGINBEHARREKIN LAGUNTZERAKOAN FAMILIAK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK</p>	<p align="center">ESKOLAN HAURRAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO FAMILIEK EGIN DITZAKETENA</p>
<p>Etxerako lanak entregatze dataren arabera antolatu.</p>	<p>Irakasletzarekin maiztasunarekin kontaktuan egon. Eskolako eta familiako esku hartzeak koordinatu.</p>
<p>Eskolaz kanpoko ekintzak antolaketaren barnean sartu eta horiek kontuan hartu.</p>	<p>Haurraren liburu eta objektu guztiak kolorezko kodigoarekin markatu erraz eta azkar antzemateko</p>

	asmoarekin.
Azterketak programatu (denborarekin prestatzen hasteko, epe laburreko memoria zailtasunak dituzte eta)	Eskolako material guztia beti leku berean antolaturik egotea saiatu. Ikasteko espazioa beti txukun mantendu.
Iraupen luzeko atazak planifikatu (liburuak irakurketa, lan idatziak...).	Haurrari eskolako materiala prestatzen eta antolatzen irakatsi.
Bakarrik egin dezakeena berak egiten utzi baina gainontzekoan laguntza eskaini.	Etixerako lanak egiten ikasleak pasatzen duen denbora kontrolatzea eta erregistratzea lagungarria da. Modu honetan, irakasleria ikasleak behar duen denboraz informatu daiteke.
Haurraren nekea handia denean "idazkari" lana egin, hots, berak esaten duena gurasoek idatzi. Gaizki ulertzerik ez egotearren horrelakoak irakasleekin adostea komenigarria da.	Agendaren erabilera sustatu. Agendaren erabilera bisuala egin (pegatinekin, gometsekin...).
Etxeko lanen bat ikaslearentzat zailegia denean edo esfortzu gehiegi eskatzen duenean irakasleari ohartaraztea garrantzitsua da.	Haurrarekin hitz egiterakoan berarentzat berriak diren hitzak sartu, entzutez ere ikasten dute eta.
Haurrarekin liburuak irakurri. Irakurtzen ari dena ulertzea funtsezkoa da, hortaz, hitz berrien azalpena eta irakurtzen ari denaren azalpena ematea ezinbestekoa da guztiz.	Familian astean behin edo bi asteetan behin elkarrekin liburutegira joan.
Ikas-teknikak erabiltzen irakatsi (eskemak, kontzeptu mapak...)	Zailtasun berberak dituzten familien elkarteekin harremanetan jarri.
Eskolan landutako gaiak informazio bisualarekin (irudiekin...) osatu.	
Etxeko lanak testuinguru ludiko batean	

burutzea saiatu, batez ere, irakurketa.	
Irakurketa eguneroko ohitura bihurtzen saiatu.	
Akidura ekiditeko etenaldiak aurreikusi.	
Ikaslearen modeloa izanik ozen irakurri.	

Esan beharra dago hainbat ikerketek egiaztatu dutela idazketa eta irakurketa jardueretan gurasoen laguntza ikaslearen irakurketa errendimenduarekin positiboki erlazionaturik dagoela (Bolea et al., 2017, 72-76 orr.).

Errioxako Gobernuak (2019) argitaratutako gidan, esaterako, familiek dislexia duen haurren garapena sustatzeko etxean egin ditzaketen jolas batzuk proposatzen ditu:

- Jolas fonologikoak: hitz kateatuak, ikusi makusi, aho-korapiloak ...
- Jariakortasun fonologiko eta semantikoaren jolasak: silaba edo fonema jakin batekin hasi edota bukatzen diren kategoria ezberdinetako hitzak esan.
- Memoria jolasak: abestiak, poesia, errimak ...
- Hizkien ezagutzaren jolasak: hizkiak arean egin, hizkiak plastilinarekin egin, hizki mugikorak ...
- Arreta jolasak/ pertzepziozko diskriminazio jolasak: puzzleak, buru-hausgarriak ...
- Baterako irakurketa
- Imitazio jolasak

Besterik ezean, Herrerak (2015) aipatzen duen moduan haurrak eskolatik nekatuta iristen dira, horregatik, etxean lanari etekina atera ahal izateko, material estimulatzaileak behar dituzte. Honenbestez, material teknologikoen (programen, aplikazioen...) erabilera eraginkorra da. Izan ere, familiek ikasleak irakurketa zein idazketa zailtasunak gainditzeko modu erakargarriago batean lagundu ditzakete. Esate baterako, arbela dinamikoaren erabilera lagungarria da. Gurasoek etxetik ikasleak behar duen irakurketa lanketa espezifikoak online jarraitu dezakete. Arbela dinamikoa ordenagailuko pantailan testuak jartzen, animatzen eta nahi diren letrak nabarmentzen uzten duen softwarean datza.




5. BALIABIDEAK






Atal honetan dislexiarekin zerikusia duten eskura dauden baliabide ezberdinak adieraziko dira. Alde batetik, Nafarroan CREENA/NHBBZ-k eskaintzen dituen baliabide anitzen adibide batzuk azaltzen dira. Bestetik, dislexiaren gaia jorratzen duten elkarte eta talde ezberdinak aipatzen dira baita baliabide teknologiko, aplikazio zein aldizkari ezberdinak ere.

5.1. CREENA/NHBBZ

5.1.1. IKT baliabideak

4.taula. CREENA-k proposatutako baliabide batzuk (CREENA, 2020).

BALIABIDEA	AZALPENA	BALIABIDEAREN IRUDIA
DYTECTIVE	Arretazko joko eta jolas linguistikoekin modu goiztiarrean dislexia detektatzeko baliabidea da. Online zein mugikorrean erabili daitekeen doako aplikazio da. Detekzio probaren iraupena 15 minutukoa da eta egin bezain laster erantzunen informe zehatza bidaltzen da. Halere, kontuan hartu behar da informe medikua ez dela.	
GOOGLE TEKLATUA (APP)	Testuen ekoizpenean laguntzen duen Android aplikazioa da. Hitzak zein testua aurreikusten du.	
READ AND WRITE (APP)	Testua ahots (eta alderantziz) bihurtzen duen aplikazioa da eta hori errebisatzen du. Gainera, gordetako dokumentuak entzuteko	

	aukera ere ematen du.	
EzPDF READER (APP)	PDF dokumentuak ahots bihurtzeko aukera ematen duen Android aplikazioa da eta nahi den testu zatia aukeratzen uzten du ere bai.	
VOICE ALoud READER	Web orrialdeetan, berrietan, emailetan, mezuetan, PDF fitxategietan... agertutako testua ozen irakurtzen duen aplikazioa da. Ahotsak gailuan deskargatu behar dira.	
ADAPRO	Doako testu-prozesadorea da eta karaktereen nahaste bisuala saihesten laguntzen du. Esaterako, p/b/d/q hizkiak ezberdintzeko kontraste berezia erabiltzen du. Gazteleraz, portugesez eta ingeleraz erabilgarri dago.	
MODMATH (APP)	Apple gailuentzako doako aplikazioa da. Zenbakiak antolatzen eta idazten zailtasunak dituzten pertsonen zuzenduta dago. Izan ere, kenketak, biderketak, zatiketak... modu txukunean egiten laguntzen du.	
INTEGRATEK	Baliabide teknologikoak sortzen dituen enpresa da. Honen helbururik nagusia Dislexia edo bestelako ikaskuntza zailtasunak dituzten pertsonak integratzea eta laguntza da.	

5.1.2. Baliabide materialak

5.taula. CREENA-k proposatutako baliabide material batzuk (CREENA, 2020).

BALIABIDEA	AZALPENA	BALIABIDEAREN IRUDIA
MÍNIMO	Entzunezko diskriminazioa lantzeko euskarri bisuala da. Fonema bakar batean ezberdintzen diren hitzetan oinarritzen da.	
ABC dislexia	Irakurketa-idazketa lantzeko baliabidea da. Batez ere, B, D, P eta T letretan zentratzen da.	
DOMINÓ DE FONEMAS- BARAJA	Fonemak lantzeko jolasa.	
EL JUEGO DE LOS FONEMAS	Bakarka zein taldeka jolasteko mahai-jokoa.	

5.1.3. Gidak, sentsibilizazio ipuinak eta argitalpenak

6.taula. CREENA-k proposatutako beste baliabide batzuk (CREENA, 2020).

GIDAK	
<p>Protocolo de atención al alumnado con dificultad específica en lectura. Dislexia. Gobierno de la Rioja. 2019.</p>	
<p>La dislexia: guía de actuación y detección en el aula. Gobierno de Aragón. 2017.</p>	
<p>Baterías de detección de la dislexia y dificultades de lectoescritura. Ana Isabel González Contreras / Jose Luis Galve Manzano / José Luis Ramos Sánchez. 2019.</p>	
<p>Madrid con la Dislexia. Guía para entender la dislexia. 2019.</p>	
<p>Dificultades específicas de aprendizaje: dislexia. Junta de Andalucía. 2011.</p>	

<p>DISLEXIA. Guía práctica de intervención. Educación Primaria. Carmen Leín. 2019</p>	
<p>Ejercicios para la recuperación de la dislexia: 1,2,3. Maria José Berdejo y Francisca Bach. 2019.</p>	
<p>SENTSIBILIZAZIO IPUINAK</p>	
<p>Tengo dislexia. 2015. Helena Kraljic.</p>	
<p>¿Quieres conocerme? Me cuesta leer. 2009. Lidia Arroyo.</p>	
<p>ALGITALPENAK</p>	
<p>Logopedia, foniatría y audiología (aldizkaria)</p>	

5.2. Elkarteak eta taldeak

5.2.1. Disnavarra

Disnavarra dislexiak hezkuntzan dituen zailtasun eta gabeziei aurre egiteko Nafarroan duela gutxi sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Horretarako, argibidez, baliabide materialen proposamena, dislexiarekin zerikusia duten hitzaldien, formazioen, berrien eta jardunaldien informazioa eta bazkideentzat zein irakasleentzat informazio baliagarria eskaintzen du.



30.irudia. Disnavarra webgunea.

5.2.2. Dislexia Euskadi

Dislexia Euskadi 2005etik garapenean dagoen irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Taldekatzea familiek, hezitzaileek, logopedek, pediatrek eta dislexia edota beste ikasteko aparteko zailtasunak dituzten pertsonak osatzen dute eta helbururik nagusiena dislexia edota bestelako ikasteko zailtasunak dituzten pertsonen bizikaltatea eta hezkuntza garapen zein garapen emozional, sozial eta laboral gorena lortzea da. Beraz, elkarteak eskola, familia, gizarte eta lan eremuez arduratzen da.

Orobat, Dislexia Euskadik esaterako dislexiaren inguruko informazioa, eremu ezberdinetan (eskolan, familian, osasunean ...) jarduteko jarraibideak eta baliabide anitzak eskaintzen ditu.



31.irudia. Dislexia Euskadi webgunea.

5.2.3. Dislegi

Dislegi dislexia duten haurren familiek osatutako elkarte da. Honen xede nagusia dislexia duten pertsonak laguntzea da; alegia, bizitzan elementu guztiak, haien burua barne, giro onean edukitzea eta arduarekin betetzea dislexia porrot arrazoi bat izan gabe.

Beste helburuetako batzuk familiei laguntza eta aholkularitza ematea eta eskoletan formazioa edota materialen eskaintza egitea dira.



Gipuzkoako **dislexia** elkarte.

32.irudia. Dislegi webgunea.

5.2.4. Disfam

Disfam 2002an Espainian dislexia duten ikasleen familiek, dislexia duten pertsonak eta eremu ezberdinetako profesionalek sortutako elkarte da. Parte hartzaile guztiak dislexiak hezkuntzan ekar dezakeen zailtasunez baita sor daitezkeen ondorio emozionalez kezkatuta eta sentibilizatuta daude.


Elkarteak besteak beste dislexiaren inguruko informazioa, legislazioa, baliabide anitzak, dokumentazioa, dislexiarekin zerikusia duten berrien bilketa eta elkarteak egiten duen lanaren azalpena eta antolaketaren informazioa eskaintzen du.



33.irudia. Disfam webgunea.

5.2.5. Espainiako Dislexia Federazioa (FEDIS)

FEDIS Espainiako toki ezberdinetako elkarteek osatutako federazioa da. Infodis atalean dislexiaren inguruko informazioa, ikas-teknikak, zonalde ezberdinetako legislazio eta araudia, jarraitu beharreko protokoloa, baliabideak, ariketak... eskaintzen ditu.



34.irudia. FEDIS webgunea.

Lehen Hezkuntzan dislexia duten ikasleekin esku-hartze egokirako protokoloa

5.2.6. Europako dislexia elkarteak (EDA)

Europako dislexia elkarteak (EDA) 1987an Belgikan herrialde anitzetako dislexia duten pertsonen, haien familiek, profesional ezberdinek eta ikerlariek sortutako taldea da. Herrialde ezberdinen arteko informazio eta baliabideen partekatzea ahalbidetzen du helbururik nagusia dislexia duten pertsonen garapena ezin hobea izatea du eta. Era berean, gobernuei aldaketak eskatzen eta exijitzen zaizkie dislexia duten pertsonak eremu guztietan ikusgai egoteko. Esan beharra dago Espainiak EDA-n parte hartzen duela.

Horretaz gain, elkarteak dislexiaren inguruko informazioa, baliabideak, legislazioa, jardunaldiak... eskaintzen ditu.



35.irudia. EDA webgunea.

5.2.7. Dislexiaren inguruko ikerketa eta aholkularitza elkarteak (AIAD)


AIAD-k irakurketa eskuratzeko sortzen diren zailtasunak ikertzen ditu eta zailtasun horiek dituzten pertsonekin lan egiten du. Elkartearen egitasmoa dislexiaren inguruan ikerkuntzaren ikuspegitik aholkularitza lana egitea da. Azterketa eguneratuak egiten saiatzen da eta ezagutzak zailtasunak dituzten pertsonekin eta haien ingurukoekin partekatzen ditu.



36.irudia. AIAD webgunea.

5.2.8. Ikasteko zailtasun espezifikoek iberoamerikar erakundea (OIDEA)

Ikasteko aparteko zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen alde lan egiten duen munduko herrialde ezberdinek osatutako erakundea da.



37.irudia. OIDEA webgunea.

5.2.9. Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL)

BCBL kognizioa, garuna eta hizkuntza aztertzen duen Ikerbasque, Innobasque, EHU eta Gipuzkoako diputazioak fundatutako nazioarteko ikerkuntza zentroa da. Ikerkuntzaren helburu nagusia hizkuntza jabekuntzan, ulermenean eta eraikuntzan parte hartzen duten mekanismo neurokognitiboak zeintzuk diren argitzea da.

38.irudia. BCBL webgunea.

5.2.10. Facebook taldeak

Talde asko daude dislexia duten pertsonentzat, haien familientzat edota dislexia duten pertsonekin lan egiten duten profesionalentzat, esaterako, “Dislexia, familias de España”, “Grupo de apoyo en la dislexia” edo “Dyslexia support-for parents of dyslexic children”. Talde hauetan dislexiaren inguruko berriak, gomendioak, materialak, jardunaldiak... partekatzen dira.

5.3. Baliabide teknologikoak

5.3.1. Irakurketa-idazketa lantzeko baliabideak

7.taula. Irakurketa-idazketa lantzeko baliabide teknologikoak (Gobierno de La Rioja, 2019, 53-55 orr.)

BALIABIDEA	AZALPENA
KATAMOTZ	Dislexia duten ikasleak irakurketa-idazketa prozesuarekin laguntzen dituzten euskarazko programa informatikoak dira. Alde batetik, irakurketa lantzen dute eta bestetik, ariketa anitzak proposatzen dituzte. Ahotsak, irudiak, soinuak zein testuak erabiltzen dira baita jolasa ere.

GLIFING METODOA	Jolasaren bitartez irakurketan trebatzen duen ordenagailuko programa da. Ikaslearen garapenaren arabera ariketa pertsonalizatuak proposatzen ditu. Lizentzia beharrezkoa da.
BEGIZORROTZ	Ikasleak jolas moduan irakurketan murgiltzen dituen euskarazko baliabidea da. Fonema-grafema asoziazioa eta hitzen ezagutze globala lantzen du (Encódigo Software).
ARBELA DINAMIKOA	Baliabide honek arbelean edozein testu jartzen ahalbidetzen du, hortaz, euskaraz erabili daiteke. Testuetan letrak nabarmentzeko aukera ematen du (haur batek “f” eta “j” letrak nahastuz gero, hauek kolore ezberdinez adierazi daitezke). Orobat, irakurmena errazteko, ikasleen grafiara hurbiltzen den letra mota aukeratu daiteke baita irakurmen abiadura egokitu ere (Encódigo Software).
IRAKURKETA DIGITALA	Irakurketa lantzen duen material motibagarri eta estrukturatua da. Irudi eta testuen erabilera egiten du eta hizkiei mugimendua, kolorea zein ahotsa esleitzeko aukera ematen du. Ikasleentzat bisuala eta entretenigarria da. Lizentzia beharrezkoa da (275€/urtean) (Dislexia y Discalculia.com, 2015).
IRAKURKETA ERRAZA	Irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleak irakurmenera hurbiltzen ditu. Izan ere, programak bereziki haientzat zuzendutako materialak sortzen ditu (Lectura Fácil Euskadi, 2014).

<p>ENTRENAMIENTO DE LA VELOCIDAD LECTORA/ APLICACIÓN PARA TRABAJAR LA COMPETENCIA LECTORA</p>	<p>Web orrialde hauek hitzen, esaldien zein testuen irakurketa erritmo ezberdinetan lantzea ahalbidetzen dute; hots, irakurketa jariakortasunean trebatzeko webguneak dira.</p>
<p>9 LETRAS/ SIEMBRA ESTRELLAS</p>	<p>Irakurketa zein idazketa gaitasunak lantzeko mota ezberdinetako ariketak proposatzen dituzten blogak.</p>
<p>BOOKSHARE</p>	<p>Dislexia eta bestelako irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei irakurmena errazten dien biblioteka online da. Izan ere, modu indibidualean pertsonaren beharretara irakurtzeko testuak egokitzen ditu (Bookshare, 2020).</p>
<p>LECTURA COMPRESIVA DE PROBLEMAS MATEMÁTICOS</p>	<p>Online erabiltzen den baliabide honek irakurketan ulermena lantzeko matematika problemak erabiltzen ditu.</p>

5.3.2. Kontzientzia fonologikoa lantzeko baliabideak

Errioxako gobernuak (2019) kontzientzia fonologikoa lantzeko ariketak proposatzen dituzten bi web orrialde interesgarri aipatzen ditu: <https://www.maestrosdeaudicionylenguaje.com/tag/conciencia-fonologica/> eta <http://ntic.educacion.es/w3/eos/MaterialesEducativos/mem2003/letras/>.

Bestalde, INFOSAL blogak dislexia duten ikasleekin kontzientzia fonologikoa lantzeko jarduera eta jolas dibertigarri eta manipulatio ugari eskaintzen ditu.

5.3.3. Ortografia lantzeko baliabideak

8.taula. Ortografia lantzeko baliabide teknologikoak (Gobierno de La Rioja, 2019, 53-55 orr.)

BALIABIDEA	AZALPENA
AUTODIK	Entzutezko diskriminazioa, hizkien omisioa eta inbertsioa, hitzen eransketa eta ortografia euskaraz lantzen dituen baliabidea da (Encódigo Software).
XUXEN ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKOA	Euskaraz ortografia zuzentzen duen baliabidea da.
ORTOGRAFIATE	Ortografia gazteleraz lantzeko ariketa bilduma.
ELEMENTAL QUERIDO WATSON	Ortografia gazteleraz lantzeko jolas bilduma.

5.3.4. Testu ahots bihurgailuak

9.taula. Testu ahots bihurgailuak (Gobierno de La Rioja, 2019, 53-55 orr.)

BALIABIDEA	AZALPENA
NATURAL READER	Edozein testu ahozko hizkuntzan bihurtzen duen baliabidea da.
TEST 2 MP3	Testuak mp3 formatuan bihurtzen dituen baliabidea da.
CLAROREAD/DITRES	Testuak audio bihurtzen dituzten beste tresna batzuk dira.

ROBOBRILLE	Dokumentuak zuzenean beste formatu batzuetan (Braille, audio, liburu elektronikoko...) bihurtzen dituen baliabidea da. Email bidez funtzionatzen duen tresna da.
ESKANER SAGUA	Eskaner moduan lan egiten duen sagua da. Edozein dokumentu digitalizatzen du eta bihurgailuen bitartez testua ahotsean bihurtu dezake.




5.3.5. Eskemak burutzeko baliabideak

10.taula. Eskemak burutzeko baliabide teknologikoak (Gobierno de La Rioja, 2019, 53-55 orr.)

BALIABIDEA	AZALPENA
POPPLLET	Ideiak buru mapetan antolatzen dituen eta sarean lan egiten duen baliabidea da.
WORDLE	Hitz hodeiak sortzeko baliabidea da. Hau da, testu bateko hitz nabarmenenak hodei formako irudi batean antolatzeko aukera ematen du.
CMAPSTOOL/ INSPIRATION/ IMIND-Q	Kontzeptu mapak eratzeko programak dira.




5.3.6. Jolas baliabideak





11.taula. Jolas baliabide teknologikoak (Educación 3.0., 2020)






BALIABIDEA	AZALPENA	IRUDIA
ALESS II	Peter Pan istorioan oinarritutako jolasa da. Fonemak eta grafemak lantzeko oso egokia da.	
EL MURO	Ikasleek pantailan agertzen diren grafemak ordenatuz hitzak modu ludikoan sortu behar dituzte.	
HECTOR EL APASIONADO LECTOR	Dislexia duten ikasleentzat zuzendutako jolasak dira. Irakurmen gaitasuna garatzeko helburua duten jarduerak dira eta ikasleak detektibe bat balira bezala jokatu behar dute.	
JARDUERA LUDIKOAK	Eskolan edota familian ikasleekin lantzeko jolasak. https://www.hacerfamilia.com/ninos/noticia-10-juegos-ninos-dislexia-20150310124950.html	



5.4. Aplikazioak**12.taula.** Aplikazioak (App) (Educación 3.0., 2020)

APLIKAZIOA	AZALPENA	APP IRUDIA

(APP)		
DYSEGGXIA	<p>Idazketa-irakurketa zailtasunak gaitzen laguntzen duen mugikorreko jolasa da. Gaztelaraz hurrek egiten dituzten akats ohikoak lantzen ditu baita ikasleek erabiltzen dituzten maiztasun handiko hitzak ere. 3 zailtasun maila bereizten dira.</p>	 <p>Sustitución</p>
DISLEXIA EJERCICIOS PRÁCTICOS	<p>Idazketan zailtasunak eta irudi eta kontzeptuen arteko asoziazioak lantzeko ariketak dira. 5 bloke ezberdinetan banatzen dira. 3,99 € balio du.</p>	
PIRULETRAS	<p>Irakurketa-idazketa zailtasunak jolasen bitartez lantzeko aukera ematen duen doako aplikazioa da. Ariketak hurrek egiten dituzten ohiko akatsak kontuan hartuta pentsatuta daude. 2.500 ariketa baino gehiago eskaintzen ditu eta 5 zailtasun maila ezberdinetan banatzen dira. Gaztelaraz zein ingeleraz erabili daiteke.</p>	

GALEXIA	Irakurketa ulermena eta jariakortasuna hobetzeko maila ezberdinetako jolasak jasotzen dituen aplikazioa da. Gainera, esku-hartze programa ere eskaintzen du.	
COGNIFIT	Garuna trebatzeko helburuarekin pentsatzeko jolasak, buruhaustek eta erronka mentalak proposatzen dituen aplikazioa da.	
AHOTTS	Testu ahots bihurgailua (euskaraz)	
DYTECTIVE U	Irakurketarekin zerikusia duten gaitasunak (pertzepzioak, memoria, linguistikoa, exekuzio funtzioak...) lantzeko 35.000 ariketa baino gehiago eskaintzen dituen aplikazioa da. Mugikorrean zein ordenagailuan erabili daiteke. Honen bitartez, ikasleak irakurketan, idazketan eta ulermenean modu pertsonalizatu eta ludiko batean garatzen dira.	


LIXTA	Hiztegia erraz ikasten eta memorizatzen laguntzen duen mugikorreko aplikazioa da. 2,99€ balio du.	
LA MAGIA DE LAS PALABRAS	Haurrek pantailan idazten dituzten hizkien, hitzen eta esaldien soinua entzutea ahalbidetzen duen tresna da. Ortografia proba batzuk biltzen ditu baina berriak sartzeko aukera ere ematen du. 2,69€ balio du.	
LAS LETRAS Y YO	Dislexiaren inguruko errelatu bat da. Ilustrazioek neska baten emozioen bitartez dislexia zertan datzan azaltzen dute. Irakasleentzat zein gurasoentzat orientabideak ere ematen ditu, baita irakurketa errazteko audioa ere. 1,99€ balio du.	
SCRABBLE	Hitzak sortzeko mugikorreko jolasa.	
IDEAMENT	Ikaskuntza teknika ezberdinekin lan egiteko tresna da. Testu bat kontzeptu mapa, eskema, mapa mental edo diagrama batean bihurtu dezake eta alderantziz ere bai.	

CAMSCANNER	Mugikorreko kamara eskaner moduan erabiltzeko aukera ematen duen aplikazioa da; adibidez, testuak audio bihurtzen ditu.	
FOR DYSLEXIA (ALPHABETICS ...)	<p>Metodo multisentsorialean (Orton Gillingham metodoan) oinarritutako aplikazio multzoa. Letrak eta formak soinuen eta eskulanean bitartez irakasten dira.</p> <p>Esate baterako, Alphabetics fonemak lantzeko entzutezko, ikusizko, ukimenezko eta ahoskerako jolasak biltzen ditu. Gainera, ikaslearen garapenaren informeak eskaintzen ditu.</p>	 
DEXIA FULL	Estimulazio kognitiboa sustatzen duen aplikazioa da eta ikasleen idazketa-irakurketa garapenean laguntzen du. 5,5€ balio du.	

5.5. Aldizkariak

Alde batetik, dislexian espezializatutako aldizkariak daude. Esate baterako, “Dyslexia. An international journal of research and practice” eta “Dyslexia online magazine” aldizkariak (ingeleraz).

The domain dyslexia-parent.com is for sale. To purchase, call Afternic.com at +1 781-373-8847 or 855-201-2286. Click here for more details



Enlaces relacionados

- Online School for Dyslexia >>
- Dyslexia Certification Programs >>
- Dyslexia Tutoring Programs >>
- Dyslexia Help for Parents >>

Copyright © All rights reserved. Privacy Policy

39.irudia. Dislexian espezializatutako aldizkariak.

Beste alde batetik, hezkuntzari buruzko aldizkariak daude eta horietan noizbehinka dislexiaren inguruko artikulua eta erreportajeak ere argitaratzen dira. Besteak beste, Hik Hasi aldizkariak egitasmo pedagogikoa du eta euskaraz hezkuntzari buruzko agerkariak argitara ematen ditu.

5 € • 2018ko UZTAILA • EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

hh
hik hasi

Heriotzaren lanketa
Dislexia tratatzeko gakoak
Ikus-artearen oinarritutako ikasketa
Adinaren emozionala hezkuntzan
Wilhelm von Humboldt
Hezkuntza eredu parekidea
Elen Kortaxarenaren zutabea

230



UDAKO TOPAKETAK

40.irudia. Hik Hasi aldizkaria.

5.6. Giza baliabideak

Ikastetxeko Hezkuntza Laguntza Unitateko (HLU-ko) kideak; hau da, Pedagogia Terapeutikoko espezialista (PT), Entzumen eta Hizkuntza (AL) espezialista, orientatzailea...

Hauek guztiek ikastetxeko aniztasun kasuen jarraipena egiten dute eta irakasleei esku-hartzean laguntza, orientazioa eta proposamenak eskaintzen dizkiete.

6. IKERKETAREN GARAPENA

Lanaren hasieran planteatutako galderei erantzuna bilatzeko eta bereziki lanaren lehenengo helburua erdiesteko asmoarekin ikerketa txiki bat aurrera eraman da. Horretarako, ikastetxe ezberdinetako Lehen Hezkuntzako irakasleei galdetegi bat helarazi zaie eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lehen Hezkuntza graduako azken ikasturteko ikasleei beste bat. Galdetegi hauen bitartez, hasieran adierazitako 3 galderak erantzun nahi dira; alegia, Lehen Hezkuntzako irakasleek eta graduako ikasleek dislexiaren inguruko informazio zein formazio nahikoa eta eguneratua dute? Euskaraz jaso al dute formazio hori?, haien kabuz formatu behar izan dira? Horrela izanez gero, erraza izan al da? , eta azkenik, zer eskertuko lukete formazio prozesua errazteko eta hobetzeko?

Azterketa honen helburuak, arestian esan bezala, alde batetik, aipatutako galderei erantzuna bilatzea, eta bestetik, erantzunen analisia egin ostean, ondorioak ateratzea eta ekarpena bat ematea dira.

6.1. Hipotesiak

1. Lehen Hezkuntzako irakasleek zein graduako ikasleek ez dute dislexiaren inguruko informazio eta formazio nahikorik ezta eguneratuta ere.
2. Lehen Hezkuntzako irakasleek zein graduako ikasleek formazio gehiena ez dute euskaraz jaso.
3. Lehen Hezkuntzako irakasleak zein graduako ikasleak dislexiaren inguruan haien kabuz formatu behar izan dira eta prozesua ez da erraza izan.
4. Parte-hartzaileen adina eta ikasitako espezialitatea aldagai aske erabakigarriak dira. Pedagogia Terapeutikoko aipamena ikasi dutenek eta helduagoak direnek dislexiaren inguruko formazio gehiago dute.

6.2. Metodologia

6.2.1. Populazioa eta lagina

Populazioari dagokionez, ikerketa honek alde batetik Nafarroako ikastetxe ezberdinetako (publikoetako zein kontzertatuetako) Lehen Hezkuntzako irakasleen parte hartzea izan du. Eta bestetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP-eko) Lehen Hezkuntza graduko azken ikasturteko ikasleen parte hartzea.


Ikerketaren lagina zehatz-mehatz Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinetako 23 irakasle eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lehen Hezkuntza graduko azken ikasturteko 31 ikasle dira.

Gailentzekoa da Lehen Hezkuntzako irakasleen laginak Erreniega IP, Alaitz IP, Virgen Blanca IP, Patxi Larraintzar IP, Amaiur IP, Ezkaba IP, San Frantzisko Xabier IP (Elizondo), Baztan Ikastola eta Jaso Ikastola ikastetxeetako profesionalak barne hartzen dituela. Era berean, arlo ezberdinetan (Musikan, Gorputz Heziketan, Pedagogia Terapeutikoan, Ingeleran, Psikopedagogian...) adituak diren irakasleak bere baitan hartzen ditu.

6.2.2. Diseinua

Ikerketaren diseinua ez-esperimental eta deskribatzailea da. Izan ere, Nafarroako ikastetxe ezberdinetako irakasleen eta unibertsitateko ikasleen formazioaren egoera deskribatzea du helburu eta ez dago inolako interbentziorik.

Ikerketa gauzatzeko erabili den tresna galdetegia da azterketaren helburuei begira proposena baita. Modu erraz eta azkarrean informazioa jasotzen eta erantzunak kontrastatzen ditu. Gainera, azkar batean parte-hartzaileei zabaltzeko zein parte hartzaileek egiteko teknika egokiena da.



DISLEXIA GALDETEGIA (IRAKASLETZA GRADUKO IKASLEAK)

Galdetegi honen helburua Lehen Hezkuntza Graduko azken ikasturteko ikasleek dislexiaren inguruan duten ezagutza eta formakuntza ezagutzea da.

* Derrigorrezkoa

1. Adina *

- 20-25 urte
- 26-30 urte
- 30< urte

2. Ikasitako espezialitatea *

- Gorputz Heziketa
- Musika
- Pedagogia Terapeutikoa
- Entzum en eta Hizkuntza (logopedia)
- Ingelera
- Orokorra
- Beste batzuk: _____

3. Zer da dislexia? *

- Irakurmenari zein idazmenari lotutako hizkuntza gaitasunetan eragiten duen nahasmendua da. Bizi iraunkorra da eta jatorri intelektuala du
- Irakurmenari zein idazmenari lotutako hizkuntza gaitasunetan eragiten duen nahasmendua da eta bereziki irakurmenaren ulermenean eragiten du.
- Ikastearen berariazko nahasmendua da. Bereziki kontzientzia fonologikoan eragiten du eta jatorri neurobiologikoa du.

4. "Dislexia duten ikasleek zailtasun emozionalak edota jarrerazkoak izan ohi dituzte" *

- Bai
- Ez
- Ez dakit

5. Dislexia duen ikasle baten ebaluazio diagnostikoa egiterakoan, kontuan hartu beharrekoak dira: *

- Ikaslearen adimen gaitasuna eta testuingurua
- Ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoa eta gaitasun fisikoa
- Ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoa eta testuingurua

6. Dislexiaren inguruan zer nolako formakuntza duzu? (Bat baino gehiago aukeratu daitezke) *

- Unibertsitateko graduan jasotakoa
- CREENA/NHBBZ-k webgunean argitaratutakoa
- Interneten begiratutakoa
- Beste pertsonak irakatsitakoa
- Elkarrekin (Disnavarra, Dislegi...) emandakoa
- Ezer ez
- Beste batzuk: _____

7. Formakuntza hori euskaraz jaso al duzu? *

- Bai, guztia
- Gehiena
- Pixka bat
- Ez

8. Dislexiaren inguruko zer nolako formakuntza duzula uste duzu? *

- | | | | | | | |
|---------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|---------|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | |
